# Energia-komunitateei eta autokontsumo partekatuari

*buruzko gida euskal udalentzat*



EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

# *Edukia*


1 Testuinguruan kokatzea, energia-trantsizioari heltzeko 4.

2 Autokontsumo partekatua. Energia komunitatearen barruan edo haietatik kanpo erabili beharreko tresna bat. 11.

3 Energia-komunitateak 18.

4 Udala energia- komunitate bat sortzeko bideratzaile gisa 28.

5 Udalak bere gain har ditzakeen eginkizunak, energia-komunitate bat sortzeko 33.

6 Energia-komunitate bat sortzeko partaidetza-prozesua 42.

7 Energia-komunitate bat sortzeko prozesuan kontuan hartu beharrekoak 46.

8 Udalerri batean energia-komunitate bat partaidetzan oinarrituta sortzeko erabakia hartzea 54.


9 Energia-komunitate baten eraketa eta kudeaketa-prozesuak 59.

10 Udalerri batean energia-komunitate bat egiteko proiektu posibleak 66.

Bibliografia eta beste erreferentzia batzuk 71.

Laburpen exekutiboa 75.

# 1. Testuinguruan kokatzea, energia-trantsizioari heltzeko



# 1. Testuinguruan kokatzea, energia-trantsizioari heltzeko

Energia-beharrak asetzea oinarrizkoa da eta izan da giza bizitzarako eta gara-penerako. Etengabeko eboluzio horre-tan, gaur egun petrolioa da munduko energia-iturri nagusia, baina, horrez gain, erabilera- eta kontsumo-produktu ugaritan ere badago. Jakina, gaur egun, petrolioa ez da energia-iturri bakarra, beste batzuk ere bai baitaude; esaterako, ikatza, gas naturala, ener-gia nuklearra eta energia berriztagarriak.

Edonola ere, etorkizunean energiaz horni-tzeko, erronka handiei aurre egin beharko die gizarteak, hauen ondorio gisa: batetik, erre-gai fosil horiek erabiltzeak berak sortutako ingurumen-arazoak, zeinek klima-larrialdian kokatu baikaituzte; erregai horiek mugatuak izatearen ziurtasuna; eta haien erabilgarrita-suna eta irisgarritasuna, zeinak energia-men-dekotasun handia eragin baitute, bai mundu mailan, bai toki mailan.

Mendekotasun-egoera hori 70eko hamarkadaz geroztik da ezaguna, baina, orain, areagotu egin da, berehala ohartuko baikara eguneroko bizitzan mugak daudela gizarteak jada ohi-turaz erabiltzen zituen energia-iturri horiek lortzeari dagokionez, eta arazoak dakartzala erregai fosilen erabilera masiboak.

Europar Batasuneko lege-maila guztietan horretaz jabetuta (bai eta Euskadin ere), azken hamarkadetan estrategiak ezarri dira, eki-menak abiarazi dira eta erabakiak eta neu-rriak hartu dira, pixkanaka erregai fosilen erabilerarekiko mendekotasuna murrizteko, eraginkortasuna hobetzeko, eta, horrez gain, geure burua baliabidez eta tresnaz hornitzeko, erresilientzia energetikoa sortuko dutenake-torkizuneko erronken aurrean, erronka horiei ere premiaz aurre egin behar baitzaie.

Energia-trantsizio horrek sortutako espa-rruak urrutiko posibilitate izateari utzi dio, eta errealitate bihurtu da; nahitaezkoa, baina hain premiazkoa, ezen berehala aurre egin behar baitzaio.

Toki-eremuan, lan-esparru horrek abagune berriak eskaintzen ditu tokiko interes horiek defendatzeko (gida honen ondoreetarako, komunitatetik edo auzotarrengandik hurbilen dagoen erakunde- eta lurralde-eremuare-kin identifikatuko da toki-eremua). Zehazki, komunitate horietako ordezkari politikoei aukera ematen die auzotarren ekonomia eta ongizatea sustatzeko, komunitatearen auto-nomia defendatuta. Zehazki, energia-balia-bideak (propioak eta besterenak) kudeatzeko ekimenak partekatzen eta/edo sustatzen dira, energia-ziurgabetasuneko egoeren aurrean; besteak beste, prezioen aldakortasuna eta igoera, kanpo-merkatuekiko mende-kotasuna eta klima-krisiaren ondorioak.



# 1.1. Paradigma-aldaketa: erregai fosilak erabiltzeari uzteko beharra


Erregai fosilen moldakortasunari eta erabilerraztasunari esker, linealki eta norabide bakarrean eraiki zen energia-sistema; hau da, sorkuntza-instalazio handiek kontsumitzaile pasiboei bidaltzen zieten energia, eta kontsumitzaile horiek jaso eta kontsumitu egiten zuten.

Pixkanaka erregai fosilak erabiltzeari utzi behar diogunez, hautabideak aurkitu behar ditugu, bai erregai horiek eragindako ondorio kaltegarriak atzean uzteko, bai gure energia-beharrei erantzuteko.

Energia berriztagarria ekoizteko teknologietan dago hautabide hori. Izan ere, teknologia horiek, nahiz eta oraindik erregai fosilen menpe egon sortzeko eta instalatzeko, aukera ematen dute eguzkiak, urak, haizeak eta beste iturri batzuek emandako energia-baliabide agorrezinak eskuratzeko.

Energia berriztagarrietara aldatzeko prozesu horri –modu sinplean adierazita– esaten zaio energia-trantsizio, eta paradigma berri horren gainean ari dira finkatzen eta eraikitzen oinarriak, Europako, Estatuko, eskualdeko eta tokiko erakunde guztiek sustatutako arau aurrezarrien barruan, herritar guztiak erakarri nahian.

Energia berriztagarria sortzeko teknologia horiek erregai fosilen oso bestelako ezaugarriak dituzte. Adibidez, moldakortasun eta energia-ahalmen txikiagoa dute; lurralde gehiago hartzen dute; aldizkakoak dira, haiek ekoizteko baliabideak egon behar duelako (haizea, eguzkia edo ura), eta biltegiratzen zailak dira, eta, ondorioz, energia ekoizteko sistema berriranzko trantsizioaren garapena birpentsatzera behartzen dute.



Gizartearekin partekatu diren arestiko estrategia, ekimen eta neurriak, eta teknologia berriztagarrien ezaugarri bereziek agerian uzten dute aukera asko daudela zabaltzeko, bai eta dakarzkiguten erronka, oztopo eta aukerak ere.

Teknologia horiek energia-errendimendu txikiagoa dute, eta aldizkakoak dira; gainera, ezaugarri bereziko materialak behar dira haiek eraikitzeko, eta gure lurraldean urriak dira halako materialak. Horrek guztiak, bai eta teknologia horien jatorriak eta izaera mugatzaileak ere, nabarmen baldintzatzen dute haien ezarpena, eta beharrezko egiten dute pertsonek onartzea bai ezarpena, bai erabilera eta kudeaketa, bai eta energia ekoizteko eta kontsumitzeko moduan dakartzaten aldaketa kulturalak ere.

**Hona hemen erronka sozial, teknologiko eta energetiko horren alderdietako batzuk:**

**Kontsumo-puntuetatik hurbil energia sortzeko beharra.**

**Zentralizaziotik deszentralizaziora:** tokiko baliabideak aprobetxatzea (udal-estalkiak, lur-eremu antropizatuak, tokiko biomasa).

**Kontsumitzaile izatetik "protsumitzaile" izatera:** herritarrak (eta udalak berak) jada ez du energiaren truke ordaindu bakarrik egiten; hura ekoitzi, kontsumitu eta kudeatu egiten du, eta partekatu egin dezake.

**Indibidualetik kolektibora:** kudeaketa komunitarioko ondasun bihurtzen da energia.

## 1.2. Ekimen komunitarioak: energia gizartetresna gisa

**Iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzko** 2018ko zuzentaraua eta **elektrizitatearen barne-merkatuari buruzko** 2019koa hartzen dituen Europako arau-paketearen helburua da gizarte osoa inplikatzea teknologia berrien erabileran, eta, horretarako, beharrezko neurri eta tresnak garatzeko bidea ematen du, teknologiak bakarrik ez baitu bidezko trantsizioa bermatzen; gizarte-partaidetza behar du.

Energia-iturria aldatzea nahikoa dela pentsatuz gero, planetaren mugen kontrako eredu bat iraunarazi besterik ez genuke egingo, zeinak, gainera, klima-krisiaren erantzule diren entitate berberetan pilatu nahi baitu aberastasuna.

Hori dela eta, udal-plangintza estrategikoan kontuan hartu beharreko aukera dira energia-ekimen komunitarioak, energiaren inguruko gizarte-partaidetzako eta -dinamizazioko tresna gisa.



Energia-ekimen komunitarioak ezarriz gero, **udalek kilowatt-ordutik harago doazen zeharkako arazoei heldu ahal izango diete:**

**Gizarte-kohesioa sustatzen du,** erakundeek eta herritarrek elkarri eragin baitiezaiokete energiaren inguruan. Herritarren partaidetza bideratu eta sustatzen du, herritarrei jabekidetasunerako aukera emanez.

**Deszentralizazioari bide ematen dio,** ez bakarrik fisikoki, bai eta boterea energiaren kudeaketa-egituretan kontzentratzeari dagokionez ere.

Udalerriko **energia-urritasunari aurre egiteko** oinarri bihur daitezke.

**Energiaren ikuspegitik irabaziak birbanatzeko aukera ematen du.**

Akordioen bitartez, **energia berriztagarrien gizarte-onarpen hobea** dakarte.

Elkartasunarekin, berdintasunarekin eta zainketa-lanarekin erlazionatutako mekanismoak txertatzeko aukera ematen dute, eta **genero-arrakalak murrizten laguntzen dute.**

**Tokiko edo hurbileko zirkuitu ekonomikoak.** Tokiko ekonomia proiektuen inguruan antolatzeko aukera ematen du.

# 1.3. Arauen bidezko bultzada eta plangintza estrategikoa

Egungo araudia aldatuz joan da, eta tresna berriak txertatu ditu legeriaren arloan, zeinek jarduteko esparruak eta helburuak ematen baitizkie maila guztietako administrazioei, tartean Euskadiri.

Hauek nabarmendu nahi ditugu dokumentu honetan:

**4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa,** Eusko Legebiltzarrak 2019ko otsailaren 21ean onartua: lege honen xedea da, energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzea, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzea. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere.

Era berean, **254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa,** 4/2019 Legearen zenbait alderdi garatzen dituena, Euskal Administrazio Publikoen eredugarritasunaz mintzatzen da 6. artikuluan.

Azkenik, **1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa,** aldarrikatu da, gaur egungo klima-larrialdiko egoerari aurre egiteko tresna gisa, neurri eta guzti. Izan ere, egoera hori atmosferaren berotzeak eragin du, eta ondorio larriak dakartza berekin, bai ingurumenerako, bai gizarterako. Euskadin beranduenik 2050erako klima-neutraltasuneko xede bat erdiestea ez ezik, beste helburu hauek ere baditu:

**Berotegi-efektuko gasen emisioak % 45 murriztea** 2030erako, 2005eko datuekin alderatuta.

**Energiaren azken kontsumoan gutxienez % 12 aurreztea** 2030erako, 2021eko datuekin alderatuta.

**Energiaren azken kontsumoan energia berriztagarriak gutxienez % 32** izan daitezen lortzea 2030erako.

**Lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia handitzea.**

Era berean, lege horrek Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea osatzen du; horrenbestez, azken horretako betebeharrek indarrean jarraitzen dute, eta lege-esparru berrira egokitu besterik ez da egiten.

Trantsizioari buruzko lege horren bitartez, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Bulegoa sortzen da erreferentzia tekniko gisa, eta, herritarren partaidetza sustatzeko, Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarra.

Bestalde, 5.000 biztanletik gorako udalerriek tokiko klima- eta energia-planak prestatu eta onartu behar dituzte, bi urtez behin, eta 5.000 biztanletik beherakoek, behartuta egon ez arren, banaka edo eskualde mailan prestatu ahal izango dituzte klima- eta energia-planak.

Gainera, arlo honetan, indarreko araudi hau 7/2026 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin erlazionatu behar da, zeinak Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onartzen baitu. Errege lege-dekretu horrek p) letra berri bat gehitu dio Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikuluko 2. apartatuari, eta, udalen eskumeen artean, herritarren energia-komunitateak eta energia berriztagarrien komunitateak sustatzeari eta haietan parte hartzeari buruzkoa txertatzen du, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren esparruan. Aipagarria da kasuan kasuko udalerrietan ingurumen-onurak, ekonomikoak edo sozialak lortzen laguntzeko udal-helburua, bai eta energia-trantsizioko jarduerak sustatzen laguntzekoa ere, bereziki autokontsumoa.

## Laburbilduz


Trantsizio energetikoa erregai fosilekiko mendekotasuna murriztu eta larrialdi klimatikoari aurre egin behar zaiolako sortu da. Horrela, egungo eredu energetikoak, batez ere petrolioan oinarrituak, arazoak ditu ingurumenean, erabilgarritasunean eta segurtasun energetikoan.

Horregatik Europako, Estatuko eta Euskadiko erakundeek energia-eraginkortasuna handitzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko estrategiak bultzatzen dituzte. Izan ere, energia berriztagarriek baliabide agortezinak eskaintzen dituzte; hala ere, aldizkakotasuna, biltegiratzea eta dentsitate energetiko txikiagoa bezalako erronkak ere badira.

Herritarrek paper aktiboa hartzen dute energia-ekoizle, energia -kontsumitzaile eta energía-kudeatzaile gisa, eta "prosumitzaile" ereduaren alde egiten dute. Estrategia berri horiek tokiko ekonomia bultzatzen lagundu behar dute, eredu energetiko zentralizatu bat gainditzuz, tokiko baliabideen aprobetxamenduan oinarritutako eredu deszentralizatu batengatik; pobrezia energetikoari aurre egiten eta berriztagarrien onarpen soziala hobetzen.

Euskadin, 4/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa (baita hura garatzen duen 254/2020 Dekretuak ere) eta 1/2024 trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko legeak ezartzen dute lan esparru berria. Lan hau isuriak murrizteari, energia aurrezteari, energia berriztagarriak handitzeari eta tokiko energia-komunitateak bultzatzeari lotutako da. Hori guztia udalek parte hartuz eta sustatuz energia-komunitate herritarretan eta energia berriztagarrien komunitateetan, jarduten duten udalerrietan ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak lortzen laguntzeko (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikuluaren 2. paragrafoaren p) epigrafea).

# 2. Autokontsumo partekatua. Energia komunitatearen barruan edo haietatik kanpo erabili beharreko tresna bat.




# 2. Autokontsumo partekatua. Energia komunitatearen barruan edo haietatik kanpo erabili beharreko tresna bat.

Energia-ekimen komunitarioak bultzatzeko, autokontsumo partekatuko instalazioak sustatzeko aukera garatu da, haiek ez baitute behar entitate juridiko espezifiko bat eratzea.

Mota horretako ekimenek energia berriztagarria sortzeko aukera ematen dute, bai eta parte-hartzaileen artean banatzeko ere, banaketa-koefizienteen bitartez. Horrela, parte-hartzaile bakoitzak autokontsumo kolektiboaren parte den hornikuntza-puntu bat du, eta energia-kuota bat esleitzen zaio, berak kontsumitzeko. Horrenbestez, fakturazio elektriko konbentzionaletik desagertuko da, eta aurrezki energetikoak eta ekonomikoak sortuko ditu.

Sortutako energia guztia autokontsumitzen ez bada (soberakina), sarera isur daiteke, eta enpresa merkaturatzaileak fakturan konpentsatu beharko du sarera isuritako kantitate hori.



Autokontsumoko instalazio bat indibiduala (adibidez, udaletxe batean) edo kolektiboa/komunitarioa izan daiteke. Azken horren adibiderik sinpleena etxebizitza-bloke edo multzo bati dagokio. Hala ere, ohikoa da, halaber, tokiko komunitateek edo auzo bereko partikularrek, taldean, energia berriztagarria sortzeko kokalekuak eta instalazioak partekatzea, beren beharrak autokontsumoaren bitartez asetzeko. Azken kasu horretan, batzuetan udalek ere sustatzen eta lideratzen dute energia-autokontsumoa sustatzeko ekimen hori.

Eskuarki, udalek energia-komunitateen bitartez parte hartzen dute energia-ekimen komunitario horietan, energia-autokontsumoak baino xede zabalagoak baitituzte komunitateek. Hala ere, hori ez da oztopo energia-komunitate batekin lotutako xede eta kideek energia autokontsumoko modalitatean ere sor dezaten sustatzeko. Hori dela eta, autokontsumo kolektiboko ekimen dezente energia-komunitateek sustatzen dituzte. Kasu horietan, autokontsumo partekatua egiten da energia-komunitate batean.

Izan ere, bai EBK baten barruko autokontsumitzaileak bai autokontsumo partekatuaren titular guztiak aske dira aukeratzeko zein enpresa merkaturatzailek emango dien zerbitzua. Halaber, litekeena da, taldean, nahitaezkotasun-akordio bat egitea —autokontsumo partekatuan edo EBKn parte hartzen dutenen erabaki gisa— enpresa merkaturatzaile bakarra kontratatzeko, energia edo sozietatea kudeatzeko ere kontratatutako zerbitzuen negoziazio global baten esparruan.

Hona hemen **autokontsumo partekatuaren funtsezko elementu batzuk:**

**Ez da entitate juridiko komun bat sortu behar:** Partaidetza zehazteko, akordio pribatu bat egin dezakete kontsumitzaileek (pertsona fisikoak, juridikoak edo administrazio publikoak), aurretik zehaztuta eta banatzaileari jakinarazita nola banatuko den energia.

**Soberakinen konpentsazioa (100 kW-etik beherako instalazioetarako):** Esparru juridikoaren arabera, autokontsumo partekatuak soberakinak konpentsatu ahal izango ditu, baldin eta modalitate sinplifikatuari heltzen badio; alegia, sortzen denean kontsumitu gabeko energia sarera isurtzen da, eta, gero, ekonomikoki konpentsatzen da kontsumitzaile bakoitzaren fakturan, sortzaile bihurtu beharrik izan gabe. Horrela, soberakinen konpentsaziorik gabeko autokontsumo-ereduan sortzen ziren galerak saihesten dira. Posibilitate hori funtsezkoa izan da hiri- eta landa-inguruneetan instalazio kolektiboak bultzatzeko, eta bideragarritasun ekonomiko handiagoa eman zaie energia banatuko proiektuei, energia-komunitate bat eratu beharrik izan gabe.

**4 hilez behin alda daitezke banaketa-koefizienteak,** bai eta parte-hartzaileen zerrenda ere; hala ere, urtean behin aldatzea da gomendagarriena, soberakinak minimizatzeko asmoz.

**Gertutasun fisikoa:** Oro har, sorkuntza-instalazioak 500 metrora baino gutxiagora egon behar du erlazionatutako kontsumitzaileengandik, oinplanoko proiekzio ortogonalean neurketa-ekipoen artean neurtua. Hala ere, 7/2026 Errege Lege Dekretuak 5.000 metrora handitu du distantzia, edozein proiektu fotovoltaiko edo eolikotan potentzia 5 MW-etik beherakoa bada.

**Autokontsumoko kudeatzailea:** Ordezkari bakarra hauta daiteke banatzailearekin harremana izateko, horrela sinplifikatu egiten baitira energiaren banaketako eta kudeaketa teknikoko izapideak.

**Energiaren banaketa estatikoa:** Gaur egun, aldez aurretik zehaztu eta adostu behar da autokontsumitzaileen arteko banaketa (finkoa izan daiteke urteko ordu guztietarako, edo aldakorra); hala ere, etorkizunean banaketa dinamikoak egiteko posibilitatea aztertzen ari dira, sistemaren eraginkortasuna hobetzeko. Banaketa dinamikoari esker, soberakinak minimizatu ahal izango dira, banaketa-koefizienteak kalkulatu ahal izango baitira fakturazio-aldian benetan zenbat sortzen eta kontsumitzen den jakindakoan.


Autokontsumo partekatuari buruzko informazio xehatuagoa dokumentu espezifiko hauek kontsulta daitezke:




[Autokontsumo partekatuari buruzko IDAEren gida]




[Autokontsumoari buruzko MITECOren ibilbide-orria]



[Autokontsumoaren tramitazioa Euskadin]




[Autokontsumoko instalazioen gida praktikoa. Gipuzkoako Foru Aldundia (2023ko urria).]




[Udal-kontsumoaren berezitasunak. IDAEren gida.]

Euskadiko Udal-autokontsumoaren adibideak hainbat dira. Euskadin: udalaren hornikuntza-puntuetara bideratutako autokontsumoko instalazio fotovoltaikoetan inbertitu duten udal gehienek autokontsumo konpartituko modalitatean inbertitu dute. Hona hemen adibide batzuk: Errenteria, Aretxabaleta eta Arrasate.

Adibide horietan, hornikuntza-puntu guztiak udalarenak dira, baina Euskadin badira beste ekimen batzuk, zeinetan udalak (edo administrazio-kontzejuak) autokontsumo partekatuko instalazio bat egin baitu eta hornikuntza-puntu batzuk herritarren esku utzi baititu:

## Elgeta

Udalaren hornikuntza-puntuez gain, gizarte-zerbitzuek 10 hornikuntza-puntu identifikatu dituzte (egoera kalteberan dauden familiak). Hornikuntza-puntu horiek banaketa-koefiziente batekin parte hartzen dute autokontsumo partekatuan, eta deskontuak dituzte beren fakturetan.



GARTXOAK, CC BY-SA 4.0, VIA WIKIMEDIA COMMONS

## Marieta-Larrinzar


Administrazio-batzarrak instalazio partekatu bat egin du. Hura da jabea, baina autokontsumo kolektiboan parte hartzen duten hornikuntza-puntu gehienak herritarrenak dira.



ETXABURU, CC BY-SA 4.0, VIA WIKIMEDIA COMMONS

Udalaren ikuspegitik, eta energia-ekimen komunitario batean parte hartu edo buru izan eta energia fosila eta konbentzionala sortzeko eta kontsumitzeko eredua gainditzearen alde egin nahi duten udalentzat, autokontsumo partekatuko sistema baten alde egiteko posibilitatea proposatzen da (errazago kudeatzen da, nahiz eta hain integrala ez izan energia-zerbitzuen posibilitateei dagokienez). Gida honetan monografikoki hitz egiten da energia-komunitateei buruz, baina, beheko taulan, autokontsumo partekatuaren eta energia-komunitatearen arteko funtsezko aldeetako batzuk aipatzen dira. Hala ere, esan dugunez, ez dute elkar baztertzen; elkar osatzen dute, energia-komunitateek autokontsumo kolektiboko instalazioak ere garatu baititzakete. Edo, agian, Udalak gidatutako autokontsumo-esperientzia on baten ondorioz, beste energia-zerbitzu batzuei ekiteko CER bat sortzeko erabakia har liteke.

| **Alderdia** | **Autokontsumo partekatua** | **Energia-komunitatea** |
|---|---|---|
| Entitate juridikoa behar da | Ez | Bai (kooperatiba, elkartea...) |
| Arau nagusia | 244/ 2019 ED | RED II (+ Kooperatiben Legea) |
| Toki-entitatearen partaidetza | Erabiltzaile edo kontsumitzaile gisa | Bazkide edo erakunde mailako sustatzaile gisa |
| Gobernantza | Teknikoa | Demokratikoa eta parte-hartzailea |
| Xedea | Energiaren banaketa/ aprobetxamendua | Tokiko gizarte- eta energia-eraldaketa |



# Laburbilduz

Energia-trantsizioa berehalako aukera estrategiko bat da udalek beren tokiko autonomia birdefini dezaten eta herritarrak klima-krisitik eta prezioen aldakortasunetik babestu ditzaten; horren haritik, erregai fosilen menpeko eredu zentralizatua baztertu, eta udalerria "protsumitzaile" bihurtuko da, eta bere energia kudeatuko du.


Energia-komunitateak eta autokontsumo partekatuko proiektuak sustatuz, toki-erakundeak bere legezko eredugarritasun- eta plangintza-betebeharrak bete ditzake —Euskadiko 4/2019 eta 1/2024 Legeetan jasoak—, eta, horrez gain, hurbileko ekonomia dinamizatzen du, energia-pobreziari aurre egiten dio, eta gizarte-kohesioa sendotzen du, tokiko baliabideak energia-subiranotasun jasangarri eta kolektiboaren zerbitzura jartzen baititu.

Autokontsumo partekatuaren bitartez, toki-entitateek bizkor eta modu sinplifikatuan murritz dezakete energiaren faktura, entitate juridiko berri bat eratu beharrik izan gabe, eta, herritarrekin batera, beste erabiltzaile bat balira bezala parte har dezakete sorkuntza banatuko proiektuetan.


Tresna hori banaketa-akordio teknikoetan oinarritzen da 5 km-ko erradio barruan kokatutako instalazioei dagokienez, eta oso erabilerraza da, aukera ematen duelako fakturan soberakinak zuzenean konpentsatzeko, bai eta administrazio-kudeaketa ahalik eta txikiena egiteko ere, autokontsumoko kudeatzaile baten bitartez.

Aukera aproposa da berehala aurrezteko soluzioen bila dabiltzan eta teknikoki eraginkorrak izan nahi duten udalerrietarako, azpiegitura publikoei probetxu aterata. Hautabide malgu bat da gizarte-gobernantzako egitura edo eraldaketa komunitario konplexu baten disenu barik.

# 3. Energia-komunitateak



# 3. Energia-komunitateak



## 3.1. Nondik gatoz? Nora goaz?

2018/2001 Zuzentaraua eta 2019/944 Zuzentaraua 2018an eta 2019an, hurrenez hurren, eman zituen Europako Batzordeak, eta, gero, berrikusi eta garatu egin zituen. Haietan, behin eta berriz esaten da energia-trantsizioa bizkortu beharra dagoela. Besteak beste, energia-komunitateen eginkizuna aipatzen dute.

Zuzentarauek, batetik, energia berriztagarrien komunitateak edo EBKk (gida honetan proposatuak eta 2018ko zuzentarauan zehaztuak) finkatzen dituzte, eta, bestetik, herritarren energia-komunitateak (ez dira gida honetan proposatzen, baina baliagarri izan daitezke EBKk sortzeko prozesuan).

Herritarren Energia Komunitateak ez garatzeko arrazoia haien xedea sektore elektrikoa orokorrean izatea da, eta ez energia berriztagarria soilik. Gainera, haien lan-eremua, teorian, udalerriak izan dezakeena baino zabalagoa da.

Dinamika hori sendotzeko, Europako Batzordeak energia-komunitateen oraingo eta etorkizuneko ekimenak sustatu, bultzatu eta indartu nahi ditu, etorkizunera begira; izan ere, adostasun sozialak lortu beharko dira, energia-kontsumoak hierarkizatuz eta gure gizarteentzat lehentasunezkoak diren jarduerak eta zerbitzuak lehenetsiz. Adostasun horietara iristeko, eztabaidak egin beharko dira ezagutza zintzoa eta sakona duten herritarrekin. Energia-komunitateak dira ezagutza hori erraz ezagutarazteko tresna egokia.

Ildo beretik, **Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legeak** zioen azalpeneko V. apartatuan nabarmentzen du beharrezkoa dela proaktiboak izatea energia-soluzio berrietan, deskarbonizazio-prozesuan aurrera egiteko, eta euskal administrazio publikoak energia-trantsizioaren erreferentzia bihurtu behar direla, bai jarduera-sektoreentzat, bai herritarrentzat eurentzat.

Bestalde, arauetatik urrunduz baina haiek tresna gisa hartuta, ekimen kolektiboen eta elkar-te-ekimenen garrantzi tradizionala onartu behar da. Denboran atzera begiratzea besterik ez dago ikusteko, adibidez, zeinen garrantzitsuak izan diren euskal tradizioan auzolanak, asanbla-dak edo, Araban, egur-zozketak, bai lan edo behar zehatzetarako, bai jendea antolatzeko. Hain sustraituta dauden praktika horiek helburu bera dute, funtsean: tokiko baliabideen bitartez, komunitate osoarentzat onuragarria dena azpimarratzea. Izan bide publikoak, basoak, eraikinak, ura edo, kasu honetan, energia. Horren haritik, esan daiteke erakundeetatik iristen zaizkigun irizpide horiek badutela lekua eta aukera bihurtzen dituztela praktika tradizional horiek.

Forma tradizional horiek egungo behar eta baldintzetara egokitu beharko dira, baina oraindik garrantzitsua da tokiko baliabideak erabiltzea, izan baliabide naturalak, teknologikoak, ekonomikoak eta, kasu honetan, giza baliabideak. Benetan argi eduki nahi badugu nora joan nahi dugun, arreta berezia eman behar zaio azken baliabide horri, eta hori bereziki garrantzitsua da krisi-garai hauetan. Mota askotako krisiak daude, eta gaurkotasun handienekoak klimatikoa, ekonomikoa, zainketena eta osasunarena dira, baina, gainera, gehiago etorriko dira; gero eta beharrezkoagoa izango da nahikotasunaren ikuspegitik heltzea, tokikoaren bitartez, eta are gehiago energia-krisiari edo lehengaienari dagokienez.



Sektore Elektrikoari buruzko Legeak energia-komunitateak jasotzen ditu 12 bis eta ter artikuluetan, beren bereizgarri, ezaugarri eta ahalmenekin, eta halakoak bideratzeko baimena ematen du; horrek agerian jartzen du erresilientzia garatzeko aukera dagoela energia berriztagarriak ekoizteko teknologiek izan dezaketen hurbiltasunaren bitartez, energia berriztagarrien komunitateez baliatuta.

Horrenbestez, energia berriztagarriak eta energia-komunitateak konbinatuta, erantzun-ahalmen hobea izango du gizarteak, aproposa eta bidezkoa etorkizuneko askotariko egoerei dagokienez.

# 3.2. Zer da EBK bat?

Energia berriztagarrien komunitate (EBK) bat jarduteko gaitasuna duen entitate juridiko bat da, eta haren helburu nagusia da energia berriztagarrietan oinarritutako soluzioen garapena sustatzea, baina beti toki-mailan, partaidetzaren bitartez, modu irekian eta diskriminaziorik gabe. Haren xede nagusiak izango dira onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak eskaintzea komunitateari berari eta haren toki-inguruneari. Onura finantzarioek ez dute lekurik izango, edo ez dute lehentasunik izango gainerakoen aurretik.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak honela definitzen ditu energia-komunitateak 3. artikuluan: *"energiaren arloan modu guztiz boluntario eta irekian parte hartzeko entitate juridikoak dira, zeinetan kontrol eraginkorra kideak diren pertsona fisikoek, ETEek edo toki-agintaritzek baitute".*

Une honetan, Estatuko araudia oraindik partzialki baino ez da egokitu zuzentarauen arabera. Ondorioz, ez da itxi dagokion forma juridikoko energia-komunitate bat identifikatzeari buruzko eztabaidarako bidea, eta, beraz, ez da behin betiko zehaztu figura jakin batekin bat datorren.



Jarraian, María José Vañok Unión Renovablesentzat egindako “Colaboración entre Ayuntamientos y Cooperativas Energéticas para el Desarrollo de Proyectos de Autoconsumo” txostenean ageri den arrazoibidea dugu.

“Energia-komunitateek entitate juridiko gisa eratu behar dute; hala dago jasota, berariaz, 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren (RED II) 2.16 artikuluan, energia berriztagarrien komunitateei (EBK) buruzkoan, eta 2019/944 (EB) Zuzentarauaren (IEMD) 2.11 artikuluan, herritarren energia-komunitateei (HEK) buruzkoan. Hala ere, ez manu horietan, ez bi zuzentarauen gainerako artikuluetan, ez da ezartzen nortasun juridiko osoaren baldintzarik, eta ez da eskatzen forma juridiko espezifikoa aukeratu behar denik.

Testuinguru honetan, esan daiteke —Batasuneko zuzenbidearen interpretazio sistematikoan oinarritua— “entitate juridiko” terminoak zentzu funtzional eta zabalean ulertu behar dela, bermatu nahi baita energia-komunitateak subjektu kolektibo bereizi gisa jardun eta eskubide eta betebeharrak eduki ahal izatea, baina ez dadila ezinbestekoa izan nortasun juridikoa edukitzea zuzenbide zibilaren edo merkataritza-zuzenbidearen zentzu klasikoan.

Europako lehiaren zuzenbideak, bereziki Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (TFUE) 101. eta 102. artikuluak aplikatuz, “enpresa” (undertaking) terminoaren ideia funtzional bat garatu du, zeina ez baita nortasun juridikoarekin lotzen, baizik eta jarduera ekonomiko batean modu autonomoan aritzeko gaitasunarekin.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian askotan adierazi bezala, hau da “enpresa” bat:

*“jarduera ekonomiko batean aritzen den entitate oro, haren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua edozein direla ere”*

Irizpide horren bitartez, esan daiteke “enpresa” direla kooperatibak, elkarteak, partzuergo publikoak, aldi baterako batasunak eta talde informalak, bai eta jarduera ekonomikoa modu antolatu eta egituratuan garatzen duten nortasun juridikorik gabeko entitateak ere. EBJAk berariaz adierazi du irizpide erabakigarria funtzionaltasuna dela, ez forma juridikoa.

Ikuspegi hori RED II eta IEMD zuzentarauetan erabilitako “entitate juridiko” kontzeptura estrapola daiteke —energiaren sektoreko berezko ñabardurekin—. Bi kasuetan, Batasuneko zuzenbideak baldintza materialak ezartzen ditu:

- Egitura antolatu bat egotea.
- Trafiko juridikoan jarduteko gaitasuna.
- Banakako kideen aurrean erabakiak hartzeko eta lan egiteko autonomia.

- Partaidetza demokratikoko, kontrol eraginkorreko eta irabazteko xederik ezeko printzipioak betetzea.

Horrenbestez, ezerk ez du eragozten energia-komunitate bat elkarte gisa edo kontratu bidez eratzea, nortasun juridiko osorik gabe, baldin eta baldintza material horiek betetzen baditu eta eskubide eta betebeharren subjektu gisa identifika badaiteke. Izan ere, Europako Batzordearen gida tekniko askotan berretsi da interpretazio hori, bai eta MITERDek 2023an argitaratutako Energia Komunitateen Ibilbide-orrian ere, non aitortzen baita egitura juridiko malguak eta tokiko errealitatera egokituak erabili ahal izango direla.

Aurrekoaren argitan, esan daiteke energia-komunitateen esparruan “entitate juridiko” kontzeptua ez dela pertsona juridikoaren sinonimo gisa interpretatu behar, baizik eta trafiko juridikoan jarduteko eta hirugarrenen aurrean erantzuteko gaitasun nahikoa duen antolaketa modu kolektibo oro gisa, Batasuneko zuzenbideak eskatutako printzipio estrukturalen arabera.

Interpretazio horrek honetarako aukera ematen du:

- Merkataritzakoak ez diren antolaketa-formulak txertatzeko.
- Energia-komunitateen segurtasun juridikoa bermatzeko.
- Egitura juridiko irisgarriak dituzten tokiko eragileen partaidetza sustatzeko; adibidez, irabazi-asmorik gabeko kooperatibak, auzo-elkarteak, administrazio-elkarteak edo partzuergoak.

Azken batean, ikuspegi horrek bateratu egiten ditu zuzentarauen literaltasuna eta EBJAren jurisprudentzia sendotua, eta koherentzia eta eraginkortasuna ematen diote energia-komunitateak Europako energia-sistema demokratizatzeko tresna gisa zabaltzeari.”

# 3.3. Zergatik sortu EBK bat?

Lehenik, energia zeharkako “behar” bat da, eta, hura “tresna” gisa erabiliz, gizarteko harreman-egituraren ereduak eraldatu nahi dira: gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa izatea, ingurumena gehiago errespetatzea eta ahaldunduta egotea nahi da.

Bigarrenik, oinarrizko ondasun bat da energia, eta pertsona guztiek lortu behar dute, baldintza berdinetan, baina modu jasangarrian.

Hirugarrenik, erronka handi samarra denez, elkarlanean egin behar da, uste baita pertsona eta erakunde guztiek, haien motibazioa edo interesa edozein direla ere, batera aurre egin ahal eta behar diotela erronka global honi, toki mailan jardunez.

Laugarrenik, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzko Legeak ibilbide bat egitera behartzen ditu toki-erakundeak, zeina, energia-komunitateen eskutik egiten bada, bakarrik eginda baino ahalegin ekonomiko txikiagoa egin beharko baita eta baliabide gutxiago erabili beharko baitira. Toki-erakundeak energia-komunitatearen proiektuetan parte hartzen badu, legeak ezartzen dituen helburuak errazago erdiesten dira.

Bat baino gehiago eta askotarikoak izan daitezke **EBK bat sortzeko arrazoiak**, ekimenetako bakoitzaren hasierako planteamenduen arabera. Haien artean, hauek aipa daitezke:

**Energia-kontsumoa murrizteko,** eta, aldi berean, gure bizi-kalitatea hobetzeko.

**Energiaren faktura merkatzeko,** kontzientziazio- eta eraginkortasun-neurriak hartuta, energia berriztagarriak erabilita, etab.

**Energia-subiranotasuna sustatzeko,** erabakiak EBKk har ditzan, eta ez enpresa handiek.

**Gizarte-kohesio handiagoa sustatzeko,** berdintasunezko eta baterako autokudeaketaren bitartez.

**Tokiko ekonomia sustatzeko,** jarduera ekonomiko bat baita, erabilitako energia-baliabideak errazten dituen zirkuitu ekonomiko batekin, jatorrizko tokian geratzea.



Gainera, herritarren parte-hartzea EHK bat sortzean ere badago.

Esan beharra dago EBKek gero eta garrantzi eta presentzia handiagoa bereganatu dutela azken urteetan, bai diskurtsoan, bai praktikan, baina, terminoa bera konplexua denez, zaila da komunitatearen definizio bakarra adostea. Komunitateaz hitz egiten dugunean, tradizionalki, auzo, herri edo bizilagunen komunitate bateko pertsonen arteko konfiantza- eta interakzio-loturei buruz ari gara. Horrela, **komunitatearen esanahian, egile askok elementu berak erabiltzen dituzte hein handi batean,** Marco Marchioniren definizioa oinarritzat hartuta (2004):

Lurraldea (eremu fisiko mugatua)

Baliabideak

Herriaren eta bertako biztanleen arteko interakzioak (pertsonak, erakundeak...)

Eskaerak: komunitatearen beharrak, nahiak, arazoak, intereseko gaiak...

Partaidetza: tresnak, organoak, komunitate jakin batean dauden herritarren partaidetza-prozesuak

Arlo honetan gehiago sakonduz, **esku-hartze komunitarioaren definizioari erreparatuz gero, hiru alderdi hauek hartu behar dira kontuan** (Morales, E. eta Rebollo, O., 2014):

1. Komunitate osoa integratzea, haren aniztasun guztia; inor ez uztea prozesu kolektiboetatik kanpo, eta arreta berezia jartzea kolektibo kalteberetan.

2. Biztanleen ahalduntzea (banakoak eta taldeak), erantzukizunak indibidualki eta kolektiboki gain hartzeko prozesuaren emaitza gisa.

3. Bizi-baldintzak hobetzea, aukera berriak sortzea, eta bizikidetza-eremuak eraikitzea, beharrei erantzuna emateko, betiere kontuan hartuta bizi-baldintzak eta geroko belaunaldiei uzten zaien ondarea.

# 3.4. Eta Euskadin? Zer gertatzen da Euskadin?

Jarraian, **Euskadin garatutako EBKen adibideak ditugu,** haien ezaugarriak eta dagokion toki-entitateak duen inplikazio-maila adierazita:

**Zuzenean herritarrek sustatuak**

Erakundeen babesarekin edo gabe sortu dira, kooperatiba edo elkarte gisa; herritarrek sustatu dituzte, eta haien behar eta aukerei erantzuten diete. Komunitate horietan, udalak sortze-prozesuaren bideratzaile-lana egin du, batzuetan kanpoko aholkularitza-enpresa batek lagunduta, eta, eratu ondoren, bazkide laguntzaile bihurtu da. EBK horien adibide ditugu Enherkom (Hernani) eta Argiñola (Elorrio).

**Energia-komunitateen sustatzaile batek sustatuak, proiektuaren kokaleku diren herrietako udalen babesarekin. Lurreko sorkuntza-instalazioetan oinarrituak.**

Sustatzaileak kooperatiba gisa eratzen du energia-komunitatea, eta kooperatibak instalazio fotovoltaiko bat eraikitzeko eta kudeatzeko beharrezko jarduera guztiak egiten ditu. Udalak bideratzaile-lana egin du prozesu osoan. EBK horien adibide ditugu Ekiola Energia Sustapenakek sustatutako Ekiolak.

**Energia-komunitateen sustatzaile batek sustatuak, aldundi eta udalen babesarekin**

Eraikinen estalkietako autokontsumo kolektiboko instalazioetan oinarrituak. Sustatutako instalazioetatik hurbil dauden herritarrak autokontsumoetan parte hartzera gonbidatzen dira, sustatzaileak kudeatutako elkarte baten aterkipean. Komunitate horietan, udalak komunitatean parte hartzera animatu ditu herritarrak, eta soberazko energia bere gain hartu du, bere hornidura-puntuekin. EBK horien adibide ditugu Edinorrek sustatutako TEKak (Tokiko Energia Komunitatea).

**Energia-komunitateen sustatzaileek sustatuak, autokontsumoko proiektuetatik abiatuta. Proiektu horiek kooperatiba ama baten barruan integratzen dira kooperatibako ataletan, eta horrek nolabaiteko autonomia ematen die.**

Komunitate horietan, udalak parte hartzera animatu ditu herritarrak, eta instalazio fotovoltaikoetarako estalkiak laga ditu. EBK horien adibide ditugu Energia Komunitateen Sarea kooperatibak sustatutakoak.

# Laburbilduz


Energia berriztagarrien komunitateak (EBK) partaidetza irekiko eta tokiko kontrolpeko entitate juridikoak dira, eta energia-trantsizioa gizarte-kohesioko eta subiranotasun ekonomikoko tresna bihurtzeko aukera ematen dute.

Europako eta Euskadiko araudiarekin bat eginda (1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa), eta balio tradizionalak berreskuratuta (esaterako, auzolana, asanbladak eta, Araban, egur-zozketak), komunitate horiek toki-erakundeei ahalmena ematen diete energia-pobretasunari aurre egiteko, herritarren eta eraikin publikoen kontsumoak eta fakturak murrizteko, eta hurbileko ekonomia dinamizatzeko, betiere ingurunearen ongizatea irabazi finantzarioaren aurretik lehenetsiz.

Udalerrian EBK bat eratzen bada eta udalak haren proiektuak aurrera eramaten laguntzen badu, jasangarritasun-legea betetzen jarraitu ahal izango du udalak, kontsumoak murriztuko baititu eta energia berriztagarrien tokiko ekoizpena handituko baitu, bakarrik eginda baino modu bideragarriagoan ekonomikoki.

Gainera, EBK bat sustatzeko edo bideratzeko erabakiak erresilientzia ematen dio udalari etorkizuneko energia-krisien aurrean, eta eragile eredugarri bihurtzen du oinarrizko ondasun baten demokratizazioan, herritarrei bide ematen baitie kontsumitzaile pasibo izateari utzi eta bere energiaren jabe den “protsumitzaile” aktibo bihurtzeko.

# 4. Udala energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko bideratzaile gisa



# 4. Udala energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko bideratzaile gisa

Europako zuzentarauak proaktiboak dira energia berriztagarrien garapena eta energia-eraginkortasuna bultzatzen. Haien arabera, askotan, maila nazionalean ezartzen direnak baino helburu anbiziotsuagoak ezartzen dituzten eskualdeko eta tokiko agintariek energia berriztagarrien arloan, eta, gaur egun, sareetan oinarritzen dira, bai eta energia jasangarrirako ekintza-planen garapenean ere. Zuzentarau horientzat, ezinbestekoak dira sare horiek, eta handitu egin behar dira, aukera ematen dutelako sentsibilizazio-ekintzak gauzatzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta eskuragarri dagoen babes finantzarioa aktibatzeko.


Gainera, haien arabera, herritarrek eta toki-agintariek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzen badute energia berriztagarrien komunitateen bitartez, balio erantsi esanguratsua sortzen da energia berriztagarriak toki-mailan onartzeari eta kapital pribatua lortzeari dagokionez; horrek berekin ekar ditzake toki-inbertsioak, kontsumitzaileentzako aukera gehiago eta herritarren partaidetza handiagoa energia-trantsizioan.

Europako zuzentarauetako premisa horiek estatu eta autonomia-erkidegoetako askotariko lege eta planetara eraman dira, hein handiagoan edo txikiagoan, eta nahitaez bete beharreko arau-garapenetan islatzen dira: PNIEC, 2030 Agenda, EAEko Jasangarritasunaren Legea, Euskadiko Energia Trantsizioaren Legea, bai eta eskumeneko lege sektorialak ere (energia, eraikinak, mugikortasuna, etab.).

Toki-entitateek, komunitatean nahi duen lanetan parte hartzeaz gain, askotariko baliabideak ezar ditzakete; besteak beste, baliabide teknikoak (materialak, eremuak, komunikazio-kanalak...), baliabide ekonomikoak (dirulaguntzak, hobariak...), baliabide pertsonalak (laguntza, aholkularitza...).

Energia toki mailan sortuta, bertan geratzen dira energia ez-berriztagarrien erabilera saihestera bideratutako inbertsioak egiteko ahalegin ekonomikoak.

**Euskadiko Energia Trantsizioaren Legearen** VII. apartatuaren amaierako zioen azalpenean esaten den bezala, *"euskal administrazio publikoak zuzenean engaiatuko dira eta honako hauek sustatuko dituzte: energia-aurrezpena eta energia-efizientzia, energia berriztagarrien ezarpena, eskala eta modalitate desberdinetan, trantsizioa bultzatzen duten irtenbide eta jardunbide zirkularrak hartzea, batez ere, deszentralizazioan, hurbiltasunean eta eskuragarri dauden baliabideen aprobetxamendu optimoan oinarrituta".*



Ulertu behar da, eraldaketa hori bidezkoa izan dadin, erregai fosilen ordez energia berriztagarriak erabiltzen hasten bagara eskaria murriztu gabe, arazoa areagotu egingo dela. Izan ere, energia-kantitate bera eraginkortasun txikiagoarekin lortzeko, baliabide ugari edo lurralde-eremu zabalak beharko dira.

Eskaria arrazionalizatuta eta mantenduta, eta planetaren benetako gaitasunen barruan kokatuta bakarrik berma dezakegu ez dugula arriskuan jarriko oraingo eta geroko belaunaldiek bizimodu duina izateko duten gaitasuna; energia-komunitateen barruan landu beharreko alderdi garrantzitsua da hori.

Tokiko partaidetza hori are garrantzitsuagoa da energia berriztagarria instalatzeko proiektu posibleei aurre egin ahal izateko gaitasun handiagoa eskuratzeari dagokionez. Horretarako, sektoreko legeriak neurriak ezartzen ditu energia berriztagarrien komunitateak beste ekoizle batzuen baldintza berdinetan lehiatu daitezen eta pertsona kalteberak integra ditzaten; horrela, mekanismo solidarioak asistentziazkoen aurretik jar daitezke.

Toki-entitateak energia-komunitate batean laguntzen eta parte hartzen badu, udalaren edo erakundearen ikuspegia txertatu ahal izango da, energiaren arloan dauden ezagutza eta baliabideak, eta toki-entitateak arlo horretan dituen interesekin lerrokatu ahal izango dira komunitatearen ekintzak.

Edonola ere, **udalak hauek eman ditzake:**

Bileretarako baliabideak eta komunitatea eratzeko babesa.

Zerga-politika berrikustea, energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak eta mugikortasun jasangarria hobetzeko. Ohikoena izaten da OHZn eta EIOZn deskontuak eskaintzea, energia berriztagarriko instalazioetan inbertitzeagatik.

Urteko aurrekontuaren ehuneko bat komunitatearen proiektuak eta zerbitzuak garatzera bideratzea.

Kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoan (KIUB) energia-zerbitzu iraunkor bat ematea.

Komunitatearen aktiboak eta zerbitzuak garatzeko eremuak eskaintzea.

Udaleko zabalkunde-kanalak erabiltzea udalerrian eredu hori ezagutarazteko.

Hauek egin dezakete energia-komunitate bat **sortzeko proposamena:**

Toki-entitateak berak. Parte hartuko duten eragileak bilatzen ditu, eta integrazio-bideak ezartzen.

Herritarrek eurek. Sortze-prozesuan inplikatzen dira, eta toki-entitatearen babesa bilatzen dute, beren asmoen berri emanda, aukerak eta atxikitzeko moduak balora ditzan.

Energiaren sektoreko enpresek. Aurretik zehaztuta dauzkate energia-komunitateak bultzatzeko metodoak, ibilbideak eta erak, gauzatzeko udalari eskatzen dioten “giltza eskura” moduko bat balitz bezala. Aukerarik berehalakoena eta errazena dirudien arren, beharrezkoa da herritarren beharrak aztertzea eta haien inplikazioa bilatzea.

Toki-entitateei energia-komunitateetan parte hartzen laguntzeko, **Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Legean** 20., 24., 26. eta 27. artikuluak sartu dira zehazki. Energia-trantsizioaren inguruko ildo orokorrak ematen ditu (20. artikulua), eta energia-berriztagarrien inguruko ildoak (24. artikulua); emakiden edo azalera-eskubideen egilespena arautzen du (26. artikulua), eta toki-entitateek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea sustatzen du (27. artikulua).




Toki-entitateek, energia-komunitateak sortzen eta, gero, haietan lan egiten eta parte hartzen lagunduz, estrategia eta legeetan jasotako bidean aurrera egiteko erabaki politiko irmoa erakusten dute. Gainera, beren ereduarekin, mezu argi eta sendo bat bidaltzen diete herritarrei: bide horretan aurrera egin behar da, eta norabidea erakutsi.

Halaber, komunitatearen barruan, funtsezko eragileak izan daitezke. Eragile bakoitzak landu beharreko gaiaz duen ezagutza ekarri behar du, edo ekar dezake; koherentea izan behar du EBKren balioekin, eta partaidetza aktiboa erraztu eta ziurtatu behar du. Alegia, konpromisoa, eskuragarritasuna eta elkartasuna erakutsi behar ditu batera ikasteko orduan.

## Laburbilduz

Udalek energia berriztagarrien komunitateetan (EBK) aktiboki parte hartzea energia-jasangarritasunari eta energia-trantsizioari buruzko Europako zuzentarauetan eta euskal legeetan jasotako eskakizun estrategiko bat da, eta toki-erakundeei aukera ematen die aldaketa eredugarritasunetik eta zerbitzu publikotik lideratzeko. Funtsezko bideratzaile den aldetik, udalak, proiektu horiek sustatzeko, udal-eremuak eta -estalkiak laga ditzake, zerga-politika egokitu dezake eragin-kortasunaren aldeko pizgarriak emateko, energia-aholkularitzako puntuak sor ditzake KIUBean, eta aurrekontu-partidak erreserba ditzake aktibo komunitarioak garatzeko. Zabalkundeko eta babes teknikoko eragile gisa diharduenez, toki-administrazioak, legeak betetzen direla bermatzeaz gain, tokiko inbertsioa sustatzen du, eta herritarrak ahalduntzen ditu; horrela, ongizate eta gizarte-kohesio bihurtzen du energia-trantsizioa udalerrian.


# 5. Udalak bere gain har ditzakeen eginkizunak, energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko



# 5. Udalak bere gain har ditzakeen eginkizunak, energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko

Ezinbestekoa da toki-erakundeen jardunarekin lotutako esparru juridikoa kontuan hartzea, energia-komunitate bat sortzean edo harekiko hartu-emanetan aritzean agertuko diren askotariko aldaera ugariak definitzeko.

Euskadiko Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jasotako helburu eta jarraibideek toki-erakundeei agintzen diete kontsumitzen duten energiaren % 100ek energia-iturri berriztagarrietatik lortua izan behar duela, eta zehazten du, orobat, 2030erako toki-erakundeen eraikin guztietan izan behar direla instalazio egokiak, eraikin horien kontsumoaren % 32 hornitzeko behar adina energia berriztagarri sortzeko, barnean harturik aprobetxamendu termikoko sistemak eta elektrizitatea sortzekoak.



Helburu horiek betetzeko, toki-erakundeek bakarka edo elkartuta jardun ahalko dute, dela merkatura jota, dela energia sortzeko jarduera ekonomiko bat garatuta, eta, bide horretan, administrazio bakoitzak bere hautua egin beharko du, efizientzian, aurrekontu-egonkortasunean, zerbitzu publikoetan eta beste zenbait irizpidetan oinarrituta.

Planteatutako helburuen anbizioa ikusirik, beharrezkoa da kidetuta aritzeko aukera mahai gainean ipintzea. Ildo horretan, energia-komunitateak aukera ona dira gure inguruko sektore guztiak inplikatzeko, guztia ere lankidetzan jardun eta zailtasunak kontuan hartu eta partekatu ditzaten, erronkak guztiak elkarrekin landu ditzaten, eta horiek gainditzeko bideak ezarri eta helburuak ahal den neurrian lor daitezen.

Urrats garrantzitsuena da udalean energia-komunitate bideragarriak garatzeko beharra azaleratzea, dela borondate politikoari begira (udal-gobernu taldearena zein oposizioarena), dela alderdi teknikoari erreparatuta. Gomendagarria da balioestea ea komeni den oposizioak ekimena kontrastatzea, energia-komunitateek hortxe jarraituko baitute, gobernu-taldea aldatu arren.

Borondate hori finkatu ondoren, toki-erakundeak noraino iritsi nahi edo ahal duen baloratu beharko da, eta saiatu beharko da, berebat, esparru juridikoan ageri diren abantailak eta oztopoak bistaratzen, erronkak ezartzen eta bide posibleak planteatzen. Ondoren, ikuspegiaren arabera gehien komeni denaren aldeko hautua egin beharko da, eta bide horri ekin.

Toki-erakundeek autokontsumo partekatuko eta energia-komunitateen proiektuetan parte hartzeko, nahitaez bete behar dira administrazio-zuzenbidearen, toki-araubidearen, ondare publikoaren eta kontratazio publikoaren printzipio orokorrak. Printzipio horiek bermatzen dituzte, hain justu, baliabide publikoen legezkotasuna, efizientzia, jasangarritasun ekonomikoa eta gardentasuna. Bereziki garrantzitsua da irizpide horiek betetzea ondasun publikoen erabilera lagatzen direnean, ekarpen ekonomiko bat egiten denean edo harreman egonkor bat ezartzen denean kanpo-erakunde batekin —energia berriztagarrien komunitate batekin, kasurako—.


Udal-jarduera orok izan behar du eskumen materiala aitortzen dion arau baten babesa. Ezinbestekoa da udalak bere legezko eskuduntzen barruan jardutea, dela ingurumena, energia eta ondarea kudeatzearen arloan, dela erakunde pribatuekiko edo energia berriztagarrien komunitateekiko lankidetzaren esparruan. Arau-estaldurarik ez izateak berekin ekar dezake administrazio-egintzak deusez aitortzea, eta sor ditzake ondare- edo zigor-erantzukizunak ere.

Kontuan izan behar da, gainera, edozein toki-erakundek planteatu dezakeela erakunde bat sustatzea, bere hornidura-bitarteko propio gisa bermatzeko. Izan ere, oinarri gisa hartu behar da udalek modu asko dituztela beste erakunde batean eta beste parte-hartzaile bat bezala parte hartzeko energia berriztagarrien komunitateak sortzeko prozesuetan, bai eta haietan parte hartzeko ere, eratu ondoren.

Toki-erakundeak energia-komunitate batean parte hartzea bide estrategikoa da modu egonkorrean esku hartzeko energia garbia eskala lokalean ekoizteko prozesuan, bai eta banaketa-proiektuetan ere. Formula horri esker, herritar antolatuekin parteka daitezke erabakiak, onurak eta konpromisoak.

Toki-erakundeek energia-komunitateen sustatzaile, dinamizatzaile edo bazkide gisa jardun dezakete, eta proiektu komun baten bitartez bidera dezakete herritarren eta enpresen parte-hartzea. Egin ditzakeen jardueren artean:

- Sustapen-taldeak sortzea gizarte-erakundeekin, auzo-elkarteekin edo kooperatibekin.
- Herritarrentzat interesgarriak diren deialdi publikoak egitea, kontsumitzaile potentzialak integratzeko.
- Laguntza teknikoa, juridikoa edo logistikoa eskaintzea, lankidetza-hitzarmenen bidez.
- Parte hartzeko prozesuak, informazio publikoa eta herritarren trebakuntza erraztea.
- Estalkiak lagatzea instalazio kolektiboak egiteko.




Funtzio horiek bat datoz subsidiariotasun-printzipioarekin eta (EB) 2019/944 Zuzentarauaren 16. artikuluarekin, zeinak indartu egiten baitu toki-erakundeek gobernantza energetikoan duten eginkizuna.

**Udalen eginkizun posiblea** erakundeok eratzeko prozesuari dagokionez:

Eratu beharreko erakundearen barruan **BAZKIDE LAGUNTZAILE** gisa sartzea. Prozesua erraztu dezake, esate baterako, erakundearen barruan bere ezaugarri partikularrak dituen beste bazkide bat gehiago bezala inplikatuta, baita hori izapidetzeko eskatzen diren ibilbide administratiboekin lagunduta ere, hala nola lokalak lagatzea eta/edo teknikarien lankidetza erraztea, komunikazio-hedabideak eskaintzea eta abar. Era berean, bazkide laguntzaile gisa sar daiteke, erakundea sortu ondoren.

**AGENTE SUSTATZAILE GISA.** Aurreko atalean azaldutako behar berberetatik eta bitarteko berberekin, baina formalki komunitatearen egitura juridikoan sartu gabe.



**BAZKIDE SUSTATZAILE GISA**, erakundearen barruan bazkide gisa sartuta. Gainera, bete egin behar dira edozein toki-erakunderi eska dakizkiokeen helburuak, oinarri gisa harturik **Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzko Legean** berriztagarriei buruz ezarritako jarraibideak. Komunitate bat sortzea bultza lezake, dela baliabide propioekin, dela komunitatea sortzeko prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko kontratu bat eginda kanpoko enpresa esperientziadun bati, gidatzeaz eta laguntzeaz komunitatea sortzeko lanetan, eta erakundeari aukera emango dio komunitateak ekoitzitako energiaren kontsumoetan parte hartzeko (baita bazkide kontsumitzaile gisa ere), betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak dioena errespetatuz.

**AGENTE BIDERATZAILE GISA.** Komunitatearen egituran formalki sartu gabe, Udalak babesa ematen dio udalerrian energia berriztagarrien komunitate bat sortzeari, herritarren parte-hartze aktiboarekin edo gabe. Udalaren laguntza izan daiteke, adibidez, bere hedabideak erabiltzea partaidetza-deialdia egiteko, edo lokal publikoak lagatzea bilerak egiteko.



Hautatutako rola edozein dela ere, parte hartzen duen toki-erakundeak **inplikazio-maila desberdinak** izan ditzake:

### INTENTSITATE-MAILA TXIKIAREKIN

Sortze-prozesuaren ondoren, udalak balora dezake inplikazio txikiagoa edukitzea eta intentsitate txikiko profila izatea, edo are ekimenetik aldentzea. Horren arriskua izan liteke hurbileko eremu publikoko erreferentziarik ez izatea hurrengo urratsei heltzeko. Hala ere, bateragarria da baterako lan-proposamenak egitearekin, puntualki bada ere, bi erakundeek (hau da, udalak eta energia berriztagarrien komunitateak) aurrera egin ahal izan dezaten helburu komunak lortzeko bidean, bi erakundeen arteko batasun sendorik gabe bada ere.

### INTENTSITATE-MAILA ERTAINAREKIN

Bazkide laguntzaile bihur daiteke, eta akordioak egin ditzake energia berriztagarrien komunitatearekin bere baliabideak partekatzeko, udalak ekarpenak egiteko borondatearekin eta kasu bakoitzean administrazio- eta lege-bide egokienei jarraituz (estalkiak, lokalak/espazioak, giza baliabideak, berriztagarrien aldeko zerga-politikak, baliabide ekonomikoak, komunikazio-bitartekoak eta abar); era berean, plantea dezake energia berriztagarrien komunitatean sortzen diren gastu errepikari guztiak edo batzuk estaltzea, hala nola asegurua, instalazioen mantentze-lanak, energia berriztagarrien komunitatea kudeatzeko gastuak, herritarrei zuzenduriko energia-aholkularitzako zerbitzuak eta abar.



## INTENTSITATE-MAILA HANDIAREKIN


Aurreko guztiaz gainera, lankidetza-hitzarmen bat izenpetu dezake energia berriztagarrien komunitatearekin, udalerriaren trantsizio energetikoari modu kolaboratiboan eta bateratuan heltzeko, bazkide izatera iritsi gabe. Aukera hori oso interesgarria da, eta oso lagungarria udalek azkarrago egin dezaten aurrera trantsizio energetikoan, bai eta lankidetza publiko-komunitarioan sakontzen ere. Herritarren interesa (energia berriztagarrien komunitateek ordezkatuta) eta toki-erakundearena batzeak sinergiak sortzen ditu; hala, bakoitzak bere aldetik egin dezakeena baino askoz gehiago egin daiteke elkarrekin. Badira makina bat sinergia eta baliabide partekatu, elkarrekin aprobetxatzeko modukoak. Lankidetza-hitzarmenak kontuan har ditzake energia berriztagarrien komunitatean sortzen diren gastu errepikari guztiak edo batzuk, hala nola asegurua, instalazioen mantentze-lanak, energia berriztagarrien komunitatea kudeatzeko gastuak, herritarrei energia-aholkularitza eskaintzeko zerbitzuak eta abar.



## INTENTSITATE-MAILA OSO HANDIAREKIN

Udalak erabil dezake energia berriztagarrien komunitateko inplikazio-maila handiko lankidetza-harreman bat zuzeneko tresna gisa, jasangarritasun-legeak ezartzen dizkion helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko, eta, hori horrela den heinean, egin dezake bazkide erabiltzaile/kontsumitzaile izatearen aldeko hautua. Aukera bat izan daiteke energia berriztagarrien komunitatearekin hitzarmen/akordio bat ezartzea, komunitate horrek egin ditzan inbertsioak udal-titulartasuneko estalkietako instalazioetan, eta, ildo horretan, adostu daiteke sortutako energia elektrikoaren portzentaje bat udal-erabileretarako erabiltzea eta beste bat energia berriztagarrien komunitaterako izatea. Hitzarmen horrek aurreikus dezake, berebat, energia berriztagarrien komunitatearen kargura geldituko direla instalazioen kudeaketa eta horien eragiketa- eta mantentze-lanak. Hitzarmen horretan ezarriko dira, orobat, alderdi bakoitzaren betebeharrak, barnean harturik gastu horien zati bat estaltzeko udalaren urteko laguntza ekonomikoak eta instalazioei dagozkien amortizazioak (epe luzera).

Beste kasu berezi bat litzateke Bartzelonako Udalak bere merkaturatzailea sortuta egindakoa erreplikatzea: hau da, udal-talde bat elkartzea eta erakunde bat sortzea energia ekoizteko eta kontsumitzeko bitarteko propio gisa, edo autokontsumoaren bidez, betiere legeak ezartzen dituen mugak errespetatuz.



Hartzen duten rola hartzen dutela, hauek dira **udalaren ekintza-ildo ohikoenetako batzuk:**

1

Udal-estalkietan, -lursailetan edo -azpiegituretan (merkatuak, kiroldegiak, ikastetxeak, aparkalekuak) instalazio fotovoltaikoak sustatu eta egikaritu ahal dituzte, dela beren energia-kontsumorako (hau da, autokontsumorako), dela energia sortzeko lursail edo estalkietan parte hartzen duten hirugarrenekin banatzeko (etxebizitzak, ETEak, saltokiak). Azpiegitura horiek baliabide propioekin, dirulaguntzekin edo formula publiko-komunitarioen bidez finantza daitezke.

2

Toki-erakundeek energia-erakundeei (kooperatibak, elkarteak) laga diezaiekete jabari publikoko ondasunen edo ondare-ondasunen erabilera (estalkiak, lurzoruak, eraikinak), baimenen, emakiden edo ondare-hitzarmenen bidez. Lagapen hori doan edo kostu bidez egin daiteke, baldin eta interes publikoa justifikatzen bada, ondasuna ekonomikoki ebaluatzen bada eta ezarritako helburuari jarraikiz erabiltzen dela ziurtatzen bada.

Energia-komunitateei eginiko lagapen horiek Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen 26. artikuluan daude araututa. Kasu horietan, eta toki-erakundeak zerbitzu profesionaletara jotzen duenean bere instalazioak diseinatzeko, instalatzeko, mantentzeko edo haietako energia kudeatzeko, nahitaez aplikatu behar du kontratazio publikoari buruzko araudi orokorra. Haren bidez, indartu egin daitezke kontratazioaren alderdi berritzaileak, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeen, beste energia-kooperatiba batzuen edo gizarte-ingurunean jarduten duten beste energia-komunitate batzuen parte hartzea ere, kontratazio-agiriko klausula sozialen bidez lehenetsita, toki-erakundeak egokitzat jotzen duenean.

Bide hori beste lankidetza-formula batzuekin konbina daiteke, hala nola energia-zerbitzuen kontratuekin edo kontratu mistoekin.

3

Era berean, gero eta ohikoagoa da esparru publikoak energia-komunitateak bultzatzea, bai eta autokontsumo-araubideko energia berriztagarriak sustatzea ere, politika ekonomiko eta fiskal publikoen bidez. Hain zuzen, dirulaguntza publikoek eta kenkari fiskalek (udalek eta foru-erakundeek aitorturikoak, administrazio-maila bakoitzeko zerga-figurei dagokienez) lagundu egiten dute horrelako ekimenak bultzatzen eta sustatzen. Udalaren ikuspegitik, zergen eta zerga-bilketaren arloko erabaki horiek koordinatuta egon beharko lukete udalek esparru horretan bete nahi duten energia-politikarekin. **Hona hemen adibide batzuk:**

## Udal-zergei buruzko ordenantza fiskalen bidez

Udal-zergak arautzen dituzten udal-ordenantzek (OHZ, EIOZ) zerga arautzen duen foru-arauak aipatzen dituen inguruabarrak zehaztu behar dituzte. Ildo horretan, eta egia bada ere zerga-politika larrialdi klimatikoarekin lerrokatuta dagoela, energia-aprobetxamendu fotovoltaikoari eta eguzki-aprobetxamendu termikoari lotutako borondatezko hobariak daudela, beharrezkoa da kontuan hartzea instalazioak eta higiezinak energia berriztagarria sortzeko sistemekin sartzea, baita autokontsumo partekatua osatzen duten higiezinak eta instalazioak aintzat hartzea ere, eta energia-komunitatearen berezitasunak helburu komunitarioarekin eta irabazi-asmorik gabe diseinatutako erakundetzat hartzea.

## Tokiko dirulaguntzen eta laguntzen bidez

- Autokontsumo kolektiboko instalazioei banakako ekarpenak egitea, batez ere energetikoki kalteberak diren pertsonei.
- Energia-komunitateen proiektuei kuotak ematea, bereziki energetikoki kalteberak diren pertsonei.
- Energetikoki kalteberak diren subjektuentzako laguntza partikularrak, energia- edo autokontsumo-komunitateetan integratzeko.
- Eskualdeko, nazioko edo Europako laguntzei (eta/edo horien kudeaketari) buruzko informazio-zerbitzuak bultzatzea, birgaitze integralak edo energetikoak egiteari lotuta.




Azkenik, foru-fiskalitateak ere susta dezake lan-ildo hori espektro zabaleko zergetan, hala nola PFEZari edo EJZri dagokienez, teknologia garbiekin, energia aurreztearekin eta energia berriztagarriak produzitzearekin konprometitutako energia-komunitateek baliatzen dituzten erakunde juridikoen kontribuzio edo jarduera ekonomikoetarako (betiere herritarren eta tokiko partaidetza handiarekin).

## Laburbilduz

Udalek energia-komunitateetan edo autokontsumo partekatuetan parte hartzea aukera estrategikoa da **Euskadiko Jasangarritasun Energetikoaren Legeak** 2030erako ezarritako eskakizuna betetzeko, hau da, eraikin publikoetan iturri berriztagarrien bidez lorturiko autohornidurak estaltzea energia-kontsumoaren % 32. Hala, toki-erakundeak lider izango dira trantsizioan, udal-azpiegituretan sorkuntza partekatua sustatuz (ikastetxe eta kiroldegietan, kasurako). Toki-erakundeak erabaki behar du zer rol asumitu nahi duen; agente edo bazkide aktibo gisa jardun dezake. Baita erakunde horien aldeko zuzeneko inbertsioari edo jabari publikoko estalki eta ondasunak lagatzeari buruzko intentsitate-mailari dagokionez ere, askotariko formula juridikoak erabiliz, hala nola emakidak edo ondare-hitzarmenak, betiere Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak berariaz zehazten duenari jarraikiz. Eredu horrek, baliabide finantzarioak eta teknikoak optimizatzeaz gainera, kontratazio publikoan klausula sozialak txertatzeko bidea zabaltzen du, energiarako irispidea demokratizatzeko. Hala, tokiko autonomia indartzen da, eta sendotu egiten da, era berean, herritarrei eta udaleko ehun ekonomikoari dakarkien onura. Azkenik, nabarmendu da udalaren politika ekonomiko eta fiskala ere lan-ildo lagungarri bat izan daitekeela udalen konpromisoa zehazteko, oinarri komunitario, berriztagarri eta lokala duen energia-eredu alternatibo gisa.

# 6. Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko partaidetza-prozesua




# 6. Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko partaidetza-prozesua

Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesua egokiro egin daiteke lau urratsetan, hasi halako komunitate bat sortzeko lehen ideiatik edo eskaritik eta bere kabuz funtzionatzen duen komunitate izatera iritsi arte.

**Hasiera ematea** | **Prestatzea** | **Elkarrekin sortzea** | **Abiatzea**

Urrats bakoitza egiteko orduan, kontuan hartu behar da agente bakoitzak bere denbora behar duela; hau da, pausoz pauso ibili behar da, oinarri sendoak definitu behar dira, komunitatea bera eraikitzeko eta proiektua martxan jartzeko.

Era berean, kontuan hartu behar da gertakarien prozesu lineal gisa irudikatu denak ez duela lineala izan behar denbora-espazioan. Hori horrela, zenbait gairi aldi berean ekin dakieke, eta, hala, azkarrago egin daiteke aurrera energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesuan. Une oro berrikusi behar da, hau da, etengabe egin behar da aurrera eta atzera, fase bakoitzaren eta, oro har, proiektuaren helburuak lortzen direla ziurtatzeko.



Azpimarratu behar da ezen, energia berriztagarrien komunitate-ekosistema, gizartea antolatzeko modu berria izaki, habitat bizia eta konplexua dela; esparru komunitariora zuzendua da, eta pertsonak, haien beharrak eta ingurune hurbileko baliabideak jartzen ditu erdigunean. Habitat bizi eta konplexu horretan, parte-hartzaileek izan dezakete jakintza eta eskuragarritasun handia, baina askotan beharrezkoak izaten dira kanpoko begirada eta laguntza. Kanpoko laguntza hori baliabide propioekin finantzatu ahal izango da, edo laguntza publikoen bidez (tokikoak edo beste erakunde publiko batzuenak). Era berean, laguntza hori etor daiteke energia-komunitateak sortzeko eta bultzatzeko laguntza publikoen babesean sorturiko hurbileko eraldaketa komunitarioko bulegotik, halakorik denean.

**Gipuzkoan** | **Araban** | **Vitoria-Gasteiz**

Hori horrela, energia berriztagarrien komunitate bat sortzeari loturik, **aholkularitza espezifiko bat planteatzeak onura hauek eskainiko ditu:**

### Partaidetzan

Trebetasun pertsonalak garatzeko tresnak, teknikak eta baliabideak emango dizkio taldeari. Helburuak lortzean edo harremanetan sortzen diren barne-oztopoak gainditzeko estrategiak eta kanpo-begirada. Hazkunde indibidualari eta kolektiboari laguntzea, konfiantza- eta lankidetza-giroan.

### Energiaren alderdi teknikoetan

Tokian tokiko aukerak eta baliabideak identifikatzeko laguntza. Baliabide egokiak energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako proiektuak hautatzean eta garatzean bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzeko, bai eta mota guztietako energia-kontsumoa murrizteari lotutako zerbitzuak emateko ere.

### Esparru juridikoan

Aholku ematea energia berriztagarrien komunitatea sortzean agertuko den erakunde juridikoa definitzeko prozesuan: sozietate-eredu bat baino gehiago, gobernantza, estatutuak, finantzaketa eta abar.

Beraz, energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko orduan, jakintza egokirik izan ezean, egokia izan daiteke prozesuaren koordinatzaile eta/edo bideratzaile esperientziadun baten laguntza izatea, komunitateari bere beharrak asetzen eta bidea errazten laguntzeko. Laguntza hori eska daiteke sortze-prozesuan, baina beharrezkoa izan daiteke, berebat, eratze-prozesuaren ondoren; izan ere, energia berriztagarrien komunitateak langilerik ez duen bitartean, zaila izan daiteke eratutako erakundearen betebehar juridiko, fiskal, sozial eta administratiboen jarraipena egitea.

Nolanahi ere, garbi izan behar da laguntza hori behar den eremu batean edo guztietan jaso daitekeela, eta haren helburua dela komunitatea osatzen duten pertsonak ahalduntzea, baita aholkularitza horren bitartez komunitatearen jakintza eta protagonismoa indartzea ere. Ahalduntze horren ondorioz, udalak gero eta garrantzi txikiagoa izan behar du prozesuan, eta herritarren esku utzi behar ditu protagonismoa eta erabakitzeko ahalmena.

Gida batean baino gehiagotan aurki daiteke prozesuari buruzko informazio gehiago (ikusi eranskina).


## Laburbilduz

Energia-komunitate bat sortzea prozesu estrategiko bat da, funtsezko lau fasetan egituratua, eta aukera ematen du hasierako eskaritik hasi eta tokiko erakunde juridiko buruaski bat finkatzerainoko bidean aurrera egiteko. Kaudimen teknikoa (norberarena edo laguntza-aholkulari espezifiko baten bidez azpikontratatua)eta partaidetza-oinarri sendoa uztartzen dituen udal-lidergo batetik abiatuz gero, areagotu egiten dira arrakasta- eta etorkizun-bermeak.

Toki-erakundeentzat, bide horrek berekin dakar “ekosistema bizi” bat kudeatzen parte hartzea. Ekosistema horietan, aldi berean izaten dira, batetik, komunitatea juridikoki eratzea eta energia-proiektuak abian jartzea eta, bestetik, komunitatea indartzea, komunikazio-plan eraginkorrak diseinatzea eta administrazio- edo finantza-oztopoak modu proaktiboan konpontzea.

Azken batean, pertsonak erdigunean jartzeko eta udalerriaren idiosinkrasiara egokitzeko duen gaitasunak egiten du posible energia berriztagarrien komunitatearen arrakasta, eta trantsizio energetikoa proiektu kolektibo erresiliente bihurtzen du, epe luzera tokian tokiko ongizatea eta subiranotasuna bermatzeko.

# 7. Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesuan kontuan hartu beharrekoak



# 7. Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesuan kontuan hartu beharrekoak

## 7.1. Erakunde juridiko motari dagokionez

Erakunde-motan pentsatzeaz gainera (elkartea, kooperatiba...), edozein motatako eta baldintzatako pertsonak sartzeko bidea zabaltzeak izugarri errazten du erakundeen kudeaketa eta funtzionamendua. Kooperatibek, esate baterako, nahitaezko ekarpenak ezartzen dituzte bazkide izateko. Modalitate horretan, gainera, kalteberatasun energetikoa bizi duten pertsonak integratu nahi badira, “balio sinbolikoak” ezar daitezke kooperatibaren estatutuetan, nahitaezko ekarpenak egiteari dagokionez.

Gainera, energia-komunitate batean pentsatzen dugunean, berehala etortzen da burura bazkide eta elektrizitate-kontsumitzaile izatea eta, horrenbestez, nolabait kidetua izatea instalazioarekin. Hala ere, komunitateek eginkizun ugari izan ditzakete, eta jarduera asko bildu, hala nola prestakuntza, mugikortasuna edo efizientzia energetikoa. Ikuspuntu horretatik, komenigarria da ahalik eta pertsona gehien integratzea, proiektuak kontzientziazio eta sendotasun sozial handiagoa behar baitu.

Garrantzitsua da komunitatea ordezkatzen duten kolektiboek lekua izatea eta energia berriztagarrien komunitatearen administrazio-organoaren osaeran agertzea.



# 7.2. Garatu beharreko proiektuak eta haien kudeaketa

Nahiz eta energia-komunitate batek gauzatu beharreko proiektuak askotarikoak diren (baita kudeaketari loturiko itxaropenak ere), kontuan hartu behar dira instalazio fotovoltaikoek berez duten moldakortasuna eta inbertsioak monetizatzeko tresna gisa duten potentziala. Ildo horretan, autokontsumoa energia-komunitateen barruan arrakasta bermatzeko faktore bat da agente guztientzat, baina bereziki toki-erakundeentzat, komunitateotan parte hartzen dutenean.

18/2022 Errege Lege-dekretuak ekarritako aldaketak —gerora 20/2022 Errege Lege-dekretuak eta **7/2026 Errege Lege-dekretuak** zabaldua— areagotu egin zuen autokontsumo partekaturako baimendutako erradioa jatorrizko 500 metroetatik 5 kilometrora arte, 5 MW-eko potentziatik beherako instalazio fotovoltaiko eta eolikoen kasuan. Aldaketa horrek nabarmen eraldatu du energia-komunitateen panorama operatiboa.

Zabalkuntza horri esker, **toki-erakundeek aukeran dute:**


Gutxi erabiltzen diren espazioak aprobetxatzea (nabe, kiroldegi, aparkaleku eta abarretako estalkiak), baita udalerriaren inguruko eremuetan ere.

Onuradun gisa sartzea instalaziotik urrun dauden etxebizitza sozialak, saltokiak, ikastetxeak edo kirol-zentroak.

Inbertsio publikoak optimizatzea, instalazio fotovoltaikoaren kostua kontsumo puntu gehiagoren artean amortizatuta.

Faktura elektrikoa murriztea, zuzeneko autokontsumoagatiko itzulketarekin eta soberakin-konpentsazioarekin (244/2019 Errege Dekretuaren 14. artikulua).

Kohesio soziala sustatzea, eta, ildo horretan, etxe kalteberak, elkarteak edo ETEak gobernantza partekatuko proiektuetan integratzea.



Autokontsumo partekaturako tresnak —toki-erakundearen barruan erabiltzen da, eta toki-erakundeak erabiltzaile edo kontsumitzaile gisa parte har dezake han— aukera ematen du sistema horren bidez kudeatutako energia tokiko baliabideekin ekoitzitako eta kontsumitutako energia berriztagarri gisa konputatzeko. **Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak** ezartzen duenez, nahitaezkoa da udalak kontsumitutako energiaren % 32 tokiko baliabideekin ekoitzia izatea, baina ez du definitzen sorkuntza-bitarteko horien jabetza; beraz, udalak autokontsumo partekatu batean parte hartzen badu eta hornidura-puntu propioak baditu, ekoizpen propio gisa zenbatuko da instalazio horrek sortzen duena eta hornidura-puntu horiei dagozkien banaketa koefizienteekin banatzen dena.



## 7.3. Ekoitzitako energia fakturatzea

Kontsumitzaile/bazkide bakoitzak (kasu honetan toki-erakundeak) energiaren bidez fakturatzeko duen mekanismoa ez da sekula egiten energia-komunitatearen bidez, kontuan izanik haren parte dela, autokontsumitzaile gisa. Energia berriztagarrien komunitatea da berez energia autokontsumo-erregimenean ekoizten duen erakundea; halere, merkaturatze-konpainia baten bidez fakturatu behar da. Izan ere, autokontsumo-erregimena hornidura elektrikoaren azpiegituran oinarritzen da (hau da, hornidura-sareetan). Horrek esan nahi du energia berriztagarrien komunitateko bazkide kontsumitzaile bakoitzak autokontsumo-erregimenean duen merkaturatzaileak hartuko duela bere gain fakturazioa. Toki-erakundeen kasuan, lizitazio-prozeduraren bidez aldez aurretik kontratatutakoak.

Merkaturatzaile horrek deskontu bat aplikatu behar du horniduraren fakturan, kontsumitutako energiaren eta ekoitzitako energiaren arteko aldea kontuan hartuta, esleitutako portzentajearen arabera. Beraz, ez dago horniduragatiko fakturaziorik autokontsumitzailearen eta energia-komunitatearen artean.

Hori horrela, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, toki-erakunde bazkide eta autokontsumitzaileak ez du erosten energia primarioa edo energia eraldatua (Sektore Publikoaren Kontratuen Legeren 16.3.d artikulua).

**Toki-erakundeek kontsumitzaile gisa parte har dezakete** autokontsumo partekatuko eskemetan, beste edozein subjekturen baldintza berberetan (energia berriztagarrien komunitatearen barruan edo kanpoan), **baldin eta:**

Kontsumo-puntu baten titularrak badira (adibidez, ikastetxea, merkatua, administrazio-eraikina).

Sorkuntza-instalazioan edo banaketa-akordioan zuzenean parte hartzen badute.

## 7.4. Udal-ondasunen (publikoak edo ondarezkoak) erabilera lagatzeko aukera

5. kapituluaren amaieran aipatutakoaz gainera, kontuan hartu behar da autokontsumo partekatuko proiektuak edo energia-komunitateak garatzeko udal-ondasunen lagapenak —izan ondasun horiek jabari publikokoak, izan ondare-ondasunak— interes publikoaren berariazko justifikazioa eta lagatako eskubidearen balorazio ekonomiko egokia eskatzen dituela. Helburua da bermatzea ondasun publikoak baliatzean errespetatzen direla legezkotasuna, efizientzia eta kolektibitatearentzako zerbitzu-izaera, eta saihestu egiten direla neutraltasun-printzipioa edo ondare-araudia urra dezaketen arbitrariotasunak edo ezkutuko lagapenak, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen 26. artikuluan zehaztutakoari jarraituz:

**Balorazio ekonomikoa ezinbesteko baldintza da**, baita lagapena doan egiten denean ere. Balorazio **horri esker ezar daitezke:**

Ondasunaren aldi baterako erabileraren balioa lagapen-aldian. Erabilera-aldia bi aldeen artean ezartzen da, eta ohikoena da instalazioaren bizitza baliagarriak zehaztea (25 urte, gutxi gorabehera).

Balizko kontraprestazioetarako (ekonomikoak, energetikoak edo gauzazkoak) kalkulu-oinarria.

Lagapena doakoa ez bada, urteko kanon bat ezarriko da.

Lagapen horren balioa diruzkoa ez den ekarpen gisa zenbatu ahal izatea, toki-erakundeak energia-komunitate batean parte hartzen badu.

Udal batek ondare-ondasunak edo jabari publikokoak lagatzeko, nahitaez bete behar da araugintza-esparru aurreikusitako araubide juridikoan (estatuan, autonomia-erkidegoan, foru-erakundeetan baita udal-ordenantzetan ere). Araudi horretan, erreferentzia dira Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua onesten duen 1372/1986 Errege Dekretua.Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak adierazten dituen hirigintzako gaikuntza-tituluak lortzearekin lotuta dago, bai eta lurralde historiko bakoitzeko foru-araudiarekin eta udal bakoitzari dagozkion ordenantzekin ere, horrelako instalazioetarako zerga-erregulazioari dagokionez.


**Balorazio ekonomikorik ez egiteak** edo behar besteko motibaziorik ez izateak zenbait ondorio **ekar ditzake:**

- Administrazio-egintzaren deuseztasuna, legezkotasun-printzipioa urratzeagatik.
- Arduradun politikoen edo teknikarien kontabilitate- edo ondare-erantzukizuna.
- Kontu-hartzailetzako organoak edo kanpo-fiskalizaziokoek legezkotasun-eragozpenak hautematea.
- Prozesutik kanpo geratu diren hirugarrenek edo berdintasun-printzipioa urratu dela uste dutenek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta juridikoa egiaztatu eta ondasuna ekonomikoki baloratu ondotik, udal-estalkien, -espazioen edo -azpiegituren erabilera energia-komunitateei lagatzeko, kontuan hartu behar dira ondasunaren izaera juridikoa (jabari publikoa edo ondarea), aurreikusitako erabilera-mota (aldi baterakoa, esklusiboa, partekatua) eta erakunde hartzailea (kooperatiba, irabazi asmorik gabeko elkartea, herritarren elkartea...).

Osoko Bilkura da, oro har, **udal-ondasunak erabiltzeko lagapena edo baimena onartzeko** organo eskuduna, kasu hauetan:

- Ondare-ondasunen doako lagapena edo erabilera-emakida onesten direnean.
- Jabari publikoko ondasunen erabilerak jatorrizko afektazioari eragin diezaiokeenean.
- Eduki ekonomiko garrantzitsua duten egintzetan.



**Erabilera-lagapenaren espedienterako nahitaezko dokumentazioa:**

Hautatutako tresnaren (baimena, emakida, kontratua, hitzarmena) legezkotasunari buruzko txosten juridikoa.

Ondasuna baloratzeko, haren erregistro-egoera identifikatzeko eta proposatutako erabileraren bateragarritasuna ebaluatzeko txosten teknikoa.

Udal Kontu-hartzailetzaren txostena, kontabilitatean, ondarean eta aurrekontuan duten inpaktuari buruzkoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legeak dioenari jarraikiz.

Interes publikoa justifikatzeko memoria, proiektua udal-helburuekin bat datorrela egiaztatzen duena (energia, klima, herritarren parte-hartzea...).

Prozedurak **ondasunaren eta egintzaren izaerara egokitu behar du:**

Jabari publikoko ondasunak badira, herri-jabariko baimenen edo emakiden araubidea aplikatuko da, erabilera erkide berezia edo pribatiboa den kontuan hartuta.

Ondare-ondasuna izanez gero, ondare-kontratuaren, emakidaren edo, salbuespenez, lankidetza-hitzarmenaren bidez baimendu daiteke, interes publikoa berariaz justifikatuta.

Komeni da gogoraraztea Euskal Autonomia Erkidegoan **Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak** 26.2 artikuluan berariaz gaitzen duela zuzeneko adjudikazioa, arrazoi justifikatuak direnean. Hala, **erakunde hartzaileak** (kooperatibak, irabazi asmorik gabeko energia-komunitateak, auzo-elkarteak) **kasu hauetan bakarrik izan daitezke zuzeneko lagapenaren hartzaile:**

Helburu sozial, energetiko edo klimatikoak egiaztatzen direnean.

Irabazi-asmorik ez denean.


Onetsitako udal-politiketan txertatzean (energia- edo klima-ekintzako planak).

Azkenik, **formalizazioari eta ondorio juridikoei dagokienez:**

Ondasunak lagatzeari buruzko akordioa idatziz formalizatu behar da, bi aldeen sinadurarekin (toki-erakundea eta energia berriztagarrien komunitatea) eta aldez aurreko baimenaren ebazpenarekin, nahitaezkoa den kasuetan.

Akordioak ondorioak izan ditzan, sinatu egin behar da lehenbizi, eta, kasuaren arabera, Udal Ondasunen Inbentarioan inskribatu.

Hitzarmen bat bada, Hitzarmenen Udal Erregistroan inskribatu behar da, eta Gardentasunari buruzko 19/2013 Legeak eskatzen duenaren arabera argitaratu.



## Laburbilduz


Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK)bat sortu aurretik, haren ezaugarri bereizgarriak definitzen lagunduko duten zenbait erabaki hartu beharko dira. Herritarrek, erakundeek eta kolektibo ahulek parte hartzea erraztuko duen eredu inklusibo batera jo beharko lukete, eta, gainera, gobernu-organoetan ordezkaritza orekatua izatea bermatu beharko lukete.

Autokontsumo partekatua da proiektu horiek bultzatzeko tresna nagusia. Horrela, udal-azpiegiturak aprobetxatuz, onuradun gehiago sar daitezke, inbertsioak optimizatu, energia-kostuak murriztu eta tokiko sorkuntza berriztagarriaren helburuak lortzen lagundu.

Energia-komunitatearen energiaren autokontsumo fakturazioari dagokionez, ez da EBKren eta bazkideen artean egiten, kontsumitzaile bakoitzaren merkaturatzaile elektrikoen bidez baizik. Kontsumitzaile horiek autokontsumitutako energiari dagozkion deskontuak aplikatzen dituzte. Horregatik, udalak proiektu horietan parte hartzeak ez dakar, printzipioz, energia-horniduraren kontratazio publikorik.

Udal-ondasunen erabilera energia-instalazioetarako lagatzeko, beharrezkoa da interes publikoa egiaztatzea, aldez aurreko balorazio ekonomikoa egitea eta ondare-, hirigintza- eta gardentasun-araudia betetzea. Azkenik, lagapen oro txosten juridiko, tekniko eta ekonomikoetan oinarritu behar da, eskumena duen organoak onartu behar du eta idatziz formalizatu behar da, eta sinatu eta erregistratu ondoren izango ditu ondorioak.

# 8. Udalerri batean energia berriztagarrien komunitate bat partaidetzan oinarrituta sortzeko erabakia hartzea



# 8. Udalerri batean energia berriztagarrien komunitate bat partaidetzan oinarrituta sortzeko erabakia hartzea

Udalerrian energia-komunitate bat sortzeko beharraren inguruko ideia zenbait bidetatik irits daiteke udalera. Nolanahi iristen dela ere ideia hori, beharrezkoa izango da erabaki politiko eta teknikoak hartzea aldez aurretik.

Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko **partaidetza-prozesua hasi aurretik:**

Gobernu-taldearen eta oposizioaren borondate politikoa balioetsi behar da; adostasuna bilatu behar da, herritarrei energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesua proposatzeko.

Erabaki behar da zer motatako partaidetza-prozesua abiaraziko den, udalak zer rol hartuko duen eta zer intentsitate-mailarekin, aurreko ataletan landu denari jarraikiz.



Kontuan hartu behar da, orobat, erronka bat dela energia-komunitate bat sortzea esparru lokalean. Eta "partaidetzan" oinarrituta egiteak esan nahi du energiak hornigai huts izateari uzten diola, eta, horren ordez, sozialki kudeatutako aktibo bihurtzen dela. Prozesu horrek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da erabakiak hartzeko prozesu bat egituratzea, udalen segurtasun juridikoa, bideragarritasun teknikoa eta, batez ere, legitimitate soziala bermatzeko, herritarren parte-hartzearen bidez.

Energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko **prozesuan inplikatutako toki-erakundearen alorrak zehazten dira:**

## 1 Politikoa

- Gobernu-taldea (bultzada politikoa): Funtzio estrategikoa du. Ekimena babesteko hasierako erabakia hartu behar dute, betiere jasangarritasun-helburuekin lerrokatuta (Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea, 2030 Agenda...). Aurrekontua adjudikatzeaz eta herritarrek parte hartzeko kanpaina gidatzeaz arduratzen dira.

- Oposizioa, erabaki partekatu baten parte gisa, bai eta ekimenak denboran jarraitzeko berme gisa ere.

## 2 Teknikoa

- Zerbitzu tekniko espezializatuak: Berme juridikoa eta bideragarritasuna ematen dute udal-araudiari eta tokiko kohesio-guneei dagokienez (batez ere Hirigintza eta Ingurumen Sailak).

- Idazkaritza eta kontu-hartzailetza: Aukeratutako forma juridikoa (elkartea, kooperatiba...) zehazten duten administrazio-espedienteen arduradunak; udalak erakundean izan dezakeen partaidetza; eta ondasun publiko edo pribatiboen balizko erabilera lagatzearen eta/edo ekarpen ekonomikoen fiskalizazioa.

- Ildo horretan, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeaz gainera, zeinak 24. artikuluan zabaltzen baitu parte-hartze hori errazteko bidea, gaur egun Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen 7/2026 Errege Lege-dekretuak p) epigrafea gaineratu dio Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 25. artikuluaren 2. apartatuari, eta hau sartu du eskumen propioen artean, betiere estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriak ezarritako zehaztapenei jarraikiz:

> p) Herritarren energia-komunitateak eta energia berriztagarrien komunitateak sustatzea eta horietan parte hartzea, jarduten duten udalerrietan ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak lortzen laguntzeko, bai eta trantsizio energetikora bideratutako jarduerak bultzatzea ere, hala nola efizientzia energetikoa, elektrifikazioa eta autokontsumoa sustatzea.

## 3 Ekonomikoa

Energia-komunitateak elkarte-izaerari heltzen badio, normalean ez da egin beharko hasierako kapital-ekarpenik, baina bai kooperatibaren kasuan —estatutuetan zehaztuko da udal-ekarpen hori. Estatutuetan ezar liteke, hasierako nahitaezko kapital-ekarpenaren zenbatekoa; baina, udalak kooperatibako bazkide izan nahi badu, partaidetza instituzionala edo gauzazkoa izan daiteke (estalkiak, ondasunak edo udal-azpiegiturak erabiltzeko lagapena).

Udalak arrakastaz parte har dezan ekimenean, erabakigarria izango da toki-erakundearen lan-eremuak sinkronizatuta aritzea.

Ondorio gisa, energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko prozesuan inplikatutako toki-erakundeak **eredu hibrido bat proposatzen du, erabakiak fluxu honi jarrai diezaion:**

**Aldez aurreko baliozkotzea eta bideragarritasuna**
Teknikoa, estalkien bideragarritasunari buruzko txosten batekin (txosten teknikoa). Soziala, energia berriztagarrien komunitate-proiektuak identifikatzeko (prozesua hasi aurretik edo bitartean), herritarrak inplika daitezen lortzeko.

**Konpromiso politikoa**
Gobernu-taldearen eta oposizioaren asmo-adierazpena. Ordezkari politiko guztiak ekimenaren alde badaude, berme eta babes handiagoa eskaintzen zaio prozesuari, eta, hala, askotarikoagoa izango da interesdunen taldea. Era berean, etorkizun ziurragoa izango du, udalarekiko harremanari dagokionez.

**Elkarrekin diseinatzea, partaidetzan oinarrituta**
Tailerrak egitea herritarrekin, elkarteekin eta ETEekin, eredua definitzeko (erabaki soziala). Energia berriztagarrien komunitateak toki-eragileen benetako beharrei erantzuten badie,handiagoa izango da atxikimendua. Eta, beraz, handiagoa eta askotarikoagoa izango da partaidetza bera ere.

**Idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako espediente administratibo aldekoak, udalak erakunde juridikoko bazkide gisa parte hartzeari dagokionez.** Ezinbesteko baldintza bat da.

**Erakunde juridikoari estalkien erabilera lagatzeko aukerari buruzko balorazioa** eta, ontzat emanez gero, lagapen hori egiteko modua.

**Berrespen instituzionala**
Osoko bilkuran onestea udala energia berriztagarrien komunitatean sartzea, bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoa zehaztu duten eta herritarrekin adostu diren baldintzetan.


## Laburbilduz

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko, aldez aurretik plangintza bat egin behar da, erabaki politikoak, teknikoak, juridikoak eta ekonomikoak barne hartuko dituena. Udalak ekimenarekin duen konpromisoa baloratu behar du eta, ahal bada, talde politiko guztien adostasuna bilatu. Udal-zerbitzu teknikoek instalazioen bideragarritasuna eta aplikatu beharreko araudira egokitzen diren aztertu behar dute. Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak udal-partaidetzaren legezkotasuna bermatzen dute, baita ondasun publikoen balizko ekarpen edo lagapenena ere.

Indarrean dagoen araudiak berariaz aitortzen du udalerriek energia-komunitateak sustatzeko eta horietan parte hartzeko duten eskumena, eta udalbatzari dagokio udalerriek erkidego horretan duten parte-hartzeari buruz erabakitzea. Herritarrek proiektuaren diseinuan esku hartu behar dute, diseinatzen den gobernantzak udalerriaren benetako beharrei erantzuten diela ziurtatzeko.

Euskadin dagoeneko ezarrita dauden arrakasta-ereduak erreferentziatzat hartuta, prozesu horrek kudeaketa profesionalizatua du, jarduera mantentzeaz, fakturatzeaz eta segurtatzeaz arduratuko dena, tokiko energia-ekosistema erresilientea eta komunitatearen ongizatean zentratua sendotuz.

# 9. Energia berriztagarrien komunitate baten eraketa eta kudeaketa-prozesuak



# 9. Energia berriztagarrien komunitate baten eraketa eta kudeaketa-prozesuak

## 9.1. Energia-komunitatea abiaraztea, prestatzea eta elkarrekin sortzea

Alde batetik, beharrezkoa da proiektuari nortasun juridiko propioa ematea. Europako eta Espainiako araudiak erakunde autonomoa, irekia eta borondatezkoa izatea eskatzen du.

**Forma juridikoa**
Forma juridikoa. Ohikoenak dira elkartea (arinagoa eta eratzen errazagoa) edo kontsumitzaile- eta erabiltzaile-kooperatiba (sendoagoa inbertsio handietarako), baina badira hain ohikoak ez diren beste figura batzuk ere, hala nola sozietate mugatuak edo auzo-mendien komunitateak.

**Sozietatearen xedea**
Ingurumen- eta gizarte-onurak lehenetsi behar ditu, finantza-errentagarritasunaren gainetik.

**Urrats erabakigarriak**
Estatutuak idaztea (nor izan daitekeen bazkide eta zer baldintza bete behar diren bazkide izateko), batzar eratzailea, erregistroan inskribatzea eta identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) lortzea.



Bestalde, ezinbestekoa da beharrezko eragileak identifikatzea. **Proiektua modu erosoan garatzeko, lau profil erabakigarriren laguntza behar da:**

**Toki-erakundea (bultzatzailea/bideratzailea)**
Estalkien erabilera laga dezake, konfiantza instituzionala ematen du eta trakzio-bazkide gisa jardun dezake.

**Herritarrak eta ETEak (bazkideak/erabiltzaileak)**
Azken kontsumitzaileak, hau da, energiaren onuradunak eta gobernantzan parte hartzen dutenak.

**Produktu- edo zerbitzu-hornitzaileak (ingeniaritza/instalatzailea)**
Instalazio fotovoltaikoak edo berriztagarriak diseinatzen, dimentsionatzen eta egikaritzen ditu, baita energia berriztagarrien komunitateak eskatzen dituen beste zerbitzu edo produktu batzuk ematen ere, eta, estatutuen ahalbidetzen duten neurrian, zerbitzuak hornitzen dituen bazkide izan daiteke.

**Administrazio-kudeatzailea**
Legeztatzeaz eta eguneroko kudeaketaz arduratzen den erakundea (askotan azpikontratatua). Erakunde juridikoa eratu ondoren, legezko betebehar batzuk izango ditu, eta gerta liteke zaila izatea energia berriztagarrien komunitateko kideentzat horiek betetzea. Posible da esparru juridikoa, kontabilitatea, fiskalitatea, alor soziala, finantzak eta kontu ekonomikoak biltzen dituzten alderdi horiek azpikontratatzea; hori hala izanez gero, energia berriztagarrien komunitateko kideek balio handiagoa ematen duten eginkizunak gauzatu ahal izango dituzte, hala nola proiektua zabaltzea, proiektuak bilatzea edo kideei aholkularitza ematea. Gainera, kudeaketa profesionalizatua mantentze-lanei, fakturazioari eta jarduera bermatzeari ekiteko aukera bat ere bada.

Prozesua hasi ondoren, gobernantza-eredua adostu beharko da. Gobernantzak erabakiak nola hartzen diren definitzen du. Kide guztiei eskaini behar die modu orekatuan parte hartzeko aukera; hau da, partizipatiboa eta ekitatiboa izan behar du (“bazkide bat, boto bat”).

Eredu publiko-komunitarioa batean baterako gobernantza dago. Hau da, toki-erakundeak parte hartzen du, eta komenigarria da erabakiak proposamen erakargarrien bidez hartzea, gai izan daitezen pertsona gehienak proposamenen edukiagatik bakarrik konbentzitzeko eta kontrol bakar eta eraginkorra saihesteko saihesteko (betoa edo gehiengo absolutua) eta bermatzeko energia-komunitatearen autonomia. Erabakiak hartzeko landu beharreko alderdien artean, **organoen funtzionamendua eta osaera aipatu behar dira.**

**Batzar Nagusia**
Kontuak eta inbertsio berriak onesten dituen organo gorena.

**Organo administratzailea**
Herritarrak, saltokiak, ETEak eta toki-erakundea ordezkatzen dituen organo kudeatzailea.

**Lantaldeak**
Talde horiek egiten dituzte energia-komunitateari bizia emango dioten proposamenak. Proposamen horiek lantaldearen adostasun handia izan behar dute. Beraz, eta ikusirik dagokion erabaki-organoak eztabaidatu behar dituela, proposamen horiek aberastuko dituen hobekuntza-proposamen txikiekin bakarrik onetsi ahal izango dira. Dagokion organoak ez badu onartzen proposamenen bat eragozpenen bat dagoelako, lantaldeak berriro egin behar du proposamena, eragozpen hori gainditu ahal izateko.

**Talde juridiko administratiboa:** talde horrek estatutuak definitzen ditu hasieran, eta, eratu ondoren, haren eginkizuna izango da eguneratuta edukitzea alderdi juridiko-legala eta administratiboa (hau da, kontabilitatearekin lotutako alderdiak eta ekonomikoak eta fiskalak).

**Proiektu-taldea:** talde horrek bilatzen du zer proiektu egin; izan daitezke sorkuntza elektriko/termikokoak, mugikortasun-proiektuak, energia-aholkularitza, eraikinak birgaitzea eta abar. Era berean, kontsumoak murrizten eta efizientzia energetikoa sustatzen laguntzen du.

**Komunikazio-taldeak eta komunitatea:** talde hori komunitatearen mezua zabaltzeaz, diskurtsoa eta mezua definitzeaz eta komunikazio-kanpainez arduratuko da. Hura arduratuko da, orobat, kide berriei harrera egiteaz, komunitatea zaintzeaz, bilerak antolatzeaz eta deitzeaz, eguneko gai-zerrendak prestatzeaz, aktak egiteaz eta are alderdi ludikoaz baita gizartegintzaz ere.

# 9.2. Energia berriztagarrien komunitatea kudeatzeko prozesuak, toki-erakundearen lan-dinamiketan kontuan hartu beharrekoak

**Ondasun publikoen erabilera lagatzea** (estalkiak, orubeak, udal-azpiegiturak) administrazio-baimenen, jabari publikoko emakiden edo azalera-eskubideen bidez.

**Zuzeneko partaidetza bazkide laguntzaile gisa,** diruzko edo ez-diruzko ekarpenen bidez formalizatuta (espazio publikoen gaineko erabilera-eskubide gisa).

**Erakundeen arteko lankidetza-hitzarmenak,** laguntza teknikoa, logistikoa, komunikatiboa edo politikoa ematera bideratuak.

**Energia-zerbitzuen kontratazio publikoa,** zuzeneko kontraprestazio ekonomiko bat dagoenean edo prestazio jarraitu bat behar denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak dioenari jarraikiz.

Ezinbestekoa da kasu guztietan **legezkotasun-printzipioa zorrotz betetzen dela ziurtatzea**, eta zorrotz aplikatu behar dira tresna juridiko egokiak, erakunde publikoaren eta sortutako erakunde juridikoaren artean hartutako lankidetza-motaren arabera. Horren barnean sartzen dira:

Hitzarmen administratiboak baliatzea, kontraprestazio ekonomikorik ez denean.

Administrazio-kontratuak formalizatzea diruz ordaindutako prestazioetarako.

Ondasun publikoen erabilera pribatiborako ondare-baimenak eta -emakidak.

Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bidez onestea, ondareari buruzko legeriak eta Toki Araubidearen Oinarrien Legeak eskatutako kasuetan.

Udalaren eta energia-komunitatearen arteko gobernantza partekatuak modu erabakigarrian laguntzen du proiektuak arrakasta eta zilegitasuna izan ditzan, baita haren jasangarritasunean ere, eta lagungarria da erantzukidetasuna, gardentasuna eta herritarren eta erakunde publikoen arteko loturak indartzeko.

## 9.3. Ustiapen-, eragiketa- eta mantentze-lanak

Komunitatea martxan jarri eta instalazioa eraiki ondoren, **fase operatiboa kritikoa da epe luzerako jasangarritasunerako:**

Erakunde juridikoaren **kudeaketa administratiboa, juridikoa, fiskala eta soziala.**

**Mantentze-lanak:** Instalazio fotovoltaikoaren mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak.

**Banaketa-koefizienteak birkalkulatzea** autokontsumo kolektiboko instalazioan.

**Aseguruak:** aseguru bat izan beharko dute proiektu energetikoek (autokontsumora bideratutako instalazio fotovoltaikoak, kasurako) eta energia berriztagarrien komunitateak berak (erantzukizun zibileko aseguruak). Zenbait aseguru-etxek dagoeneko ematen dizkiete zerbitzu horiek energia berriztagarrien komunitateei.

**Komunitatearen fakturazioa eta kudeaketa ekonomikoa:** Bazkideei kuotak kobratzea, aseguruak ordaintzea eta mantentze-lanak.

**Monitorizazioa:** Produkzioaren kontrol telematikoa, akatsak detektatzeko eta ekoizpenak eta kontsumoak optimizatzeko.

Komunitateak proiektu berriak bere gain hartu ahala, **errutina propioak txertatzea.**




## Laburbilduz

Energia-komunitate bat eratzean, egitura juridiko autonomo bat ematen zaio udalerriari, zeinak gizarte- eta ingurumen-inpaktua lehenetsiz funtzionatzen baitu. Udalari aukera eman ahalko zaio konfiantza instituzionala ematen duen trakzio-bazkide gisa jarduteko, eraikin edo azpiegitura publikoen estalkien erabilera lagatzeko aukera kontuan hartuta.

Erakunde juridikoa eraikitzearen alde eginez gero, tokiko erakundeak gobernantza-eredua zehaztu behar du. Gobernantza demokratikoa izan daiteke, eta administrazioaren, herritarren, ETEen eta bazkide teknologikoen arteko lankidetza koordinatuko du.

Euskadin dagoeneko ezarrita dauden eredu arrakastatsuak erreferentziatzat hartuta, prozesu horrek mantentze-lanetarako, fakturatzeko eta jarduera aseguratzeko kudeaketa profesionalizatu arduratsua izan behar du, eta, hala, toki-ekosistema energetiko erresiliente bat sendotuko da, komunitatearen ongizatean zentratua.

# 10. Udalerri batean energia berriztagarrien komunitate bat egiteko proiektu posibleak



# 10. Udalerri batean energia berriztagarrien komunitate bat egiteko proiektu posibleak

Taula honetan, energia berriztagarrien komunitate batek egin ditzakeen proiektu guztiak sartzen dira (gelaxkak):

| ZERBITZUA / EGITEKOA | | EGUZKI | | HAIZE | HIDRO | BIOMASA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | FV | Termikoa | Mini | Mini | Basoko | Agro | Hondakinak (Biogasa) |
| **Autokontsumoa** | Banakakoa | | | | | | | |
| | Partekatua | | | | | | | |
| **Energia ekoizpena** | Elektrikoa | | | | | | | |
| | Termikoa (beroa, hotza) | | | | | | | |
| **Zerbitzuak, aholkularitza** | Birgaitzeetan (partziala, sakona, integrala) | Energia iturriarekin ez dauka loturarik baina hobekuntzak egiteko garaian bakarrik energia berriztagarriak erabiliko dira | | | | | | |
| | Efizientzia | | | | | | | |
| | Formazioa eta informazioa | Energia iturriarekin ez dauka lotura zuzena | | | | | | |
| **Karga puntua (Ibilgailu elektrikoa)** | | | | | | | | |
| **Ibilgailu partekatua (Car Sharing)** | | | | | | | | |
| **Demandaren agregatzailea** | | | | | | | | |
| **Merkaturatzaile jarduera** | Elektrizitatea | Argi indar iturria berriztagarria bada soilik | | | | | | |
| | Gasa | | | | | | | |
| | Beroa / Hotza | | | | | | | |

Proiektua  Zerbitzua  Ez du zentzurik

**Energia berriztagarrien komunitate batentzako jarduerarik egokiena,** autokontsumo fotovoltaiko partekatutik harago:

- Energia berriztagarriko bero-sare bat sortzea eta kudeatzea (biomasa-galdarak edo bero-ponpak).
- Tokiko baso-ustiapena eta egurra, ezpalak edo pelletak erabilera termikoetarako merkaturatzea.
- Energia-aholkularitzako bulego baten arreta-zerbitzua.
- Birgaitze-proiektuetarako laguntza-zerbitzua.
- Auto partekatuak erabiltzeko eta karga-guneetarako zerbitzua.
- Autokontsumo partekatua, sorkuntza eolikotik (5.000 metro) edo hidraulikotik (500 metro oraingoz) abiatuta.

Ohikoena **autokontsumo kolektiboko instalazio batekin hastea** da. Kasu horretan, energia berriztagarrien komunitatearen **finantzaketa- eta bideragarritasun-eredua desberdina izan daiteke,** komunitate horietako bakoitzaren inguruabarretara egokituta:

**Kooperatiben kasuan,** energia berriztagarrien komunitateko bazkideen inbertsioak kapital sozialera egindako borondatezko ekarpenen bidez egin ahal izango dira. Kooperatibako bazkideen izenean jarritako kapital hori etorkizunean berreskuratu ahal izango da, hala erabakitzen bada, dela kooperatiban baja emanez gero, dela bazkideak kapitala eskatzen badu kooperatiba utzi gabe. Euskadiko Kooperatiben Legeak itzulketa-epeak ezartzen ditu, bai nahitaezko ekarpenetarako, bai borondatezko ekarpenetarako. Energia berriztagarrien komunitateetan ohikoena da proiektu energetikoko parte-hartzaile bakoitzak proiektuan duen partaidetza-portzentajearen arabera egitea ekarpena. Udalak, halaber, borondatezko kapital-ekarpenak egin ditzake, bai eta dirulaguntzak eman ere, energia berriztagarrien komunitateko proiektuak gauzatzeko.

**Elkarteen kasuan,** ez dago kapital sozialerako borondatezko ekarpenaren figurarik, eta inbertsioak ezingo dira berreskuratu kapital sozialaren kontabilitate figuraren bidez; hala ere, inbertsio horiek amortizatzen badira, instalazioaren ordez beste bat jarri ahal izango da amortizatutakoarekin, eta, balizko itzulketak aurreikusiz gero, maileguen bidez egin daiteke. Elkarteen kasuan, udalak aukeran du dirulaguntzak ematea energia berriztagarrien komunitatearen proiektuak egikaritzeko.

**Energia berriztagarrien komunitateko bazkideren bat gizarte-bazterkeriako arriskuan edo kalteberatasun ekonomikoan egonez gero,** eta energia berriztagarrien komunitateak zaintzea erabaki badu, finantzazio-mekanismo "alternatiboak" gaitzen saiatu behar da (esate baterako, bazkideen elkartasuna, udalaren ekarpenak, edo helburu horietarako dirulaguntzak erabiltzea), baita ezohiko diru-sarrerak ere (beste bazkide batzuek eginak, udalarekin lankidetza-akordioak sinatuta, edo horretara bideratutako dirulaguntzak deituta), dela bazkide horiei karga ekonomikoa murrizteko, dela energia berriztagarrien komunitatean bazkide gisa sartzea eta komunitateak egiten dituen proiektuetan parte hartzea errazteko (kolektibo horiek dira bazkideak edo Udala da bazkide kolektibo horientzat).

**BIDERAGARRITASUN ekonomikoari dagokionez,** kontu hartu beharko da diru-sarrerek estaltzen dituztela gastuak. Aintzakotzat hartu beharreko alderdiak:

- Instalazioari lotutako gastu proportzionalak: Proiektuan parte hartzen duten bazkideek energia berriztagarrien komunitatearen gastuak ordaindu beharko dituzte (amortizazioak barne), bakoitzak bere partaidetzarekiko modu proportzionalean.

- Instalazioari lotu gabeko gastuak. Gerta liteke instalazioari lotu gabeko gastuak egotea, bazkide guztien artean berdintasunez banatu ahal izango direnak, proiektuan parte hartu edo ez.

- Udalak aukeran izango du urtero laguntza bat ezartzea gastu horien parte bat ordaintzeko, lankidetza-hitzarmen baten bidez.



Azkenik, komenigarria izango da udalerrian EHZ sortzeko prozesu osoa hartuko duen kronograma orientagarri bat lantzea eta kontrastatzea. Plangintza horretan, beharrezkoa da EHZ diseinatzeko eta hura osatuko duten eragileak zehazteko erabiliko diren denborak esleitzea; diseinu horri ekiteko prestakuntza-lanak bere gain hartzea, bai eta herritarrekin batera sortzeko prozesutik eratorritakoak ere. Era berean, beharrezkoa izango da EHZ abian jartzeko eta denboran zehar kudeatzeko beharko diren denborak aurreikustea. Prozesu horretan, komeni da fase eta erabaki-eremu bakoitzeko denbora-mugarri nabarmenenak nabarmentzea. Horrela, proiektuaren bilakaera bermatuko da, eta ondoz ondoko erabakiak edo sortze-prozesua laburtzeko aldi berean har daitezkeenak zehaztuko dira.

## Laburbilduz


Energia-komunitate baten proiektuak autokontsumo kolektiboarekin hasi ohi dira, eta eredu horrek aukera ematen die bizilagunei eta ETEei tokian-tokian sortutako energia partekatzeko; era berean, murriztu egiten dira kostuak baterako inbertsioen bidez eta dirulaguntzak aprobetxatuz.

Toki-erakundearentzat, ekimen horiek aukera estrategikoa dira pobrezia energetikoari aurre egiteko, eta ahalbidetzen dute udalak edo komunitateak berak finantzatzea kolektibo kalteberak komunitatean integratzea, elkartasun-mekanismoen bidez edo soberakinak erabiltiz.

Kooperatiba bezalako egiturak aukeratzean, kapital-sistema berreskuragarria eta leheneragarria ematen da, epe luzerako bideragarritasuna bermatzen duena. Ildo horretan, udalaren ekarpena (adibidez, udal-estalkien erabilera-lagapena) tokiko motor ekonomiko bihur daiteke, eta trantsizio energetiko bidezkoa, parte-hartzailea eta udalerriaren benetako beharretara egokitua bermatzen du.

Azkenik, toki-erakunde batentzat kronograma egituratu bat izateak beharrezko baliabide tekniko eta politikoak errealismoz planifikatzea ahalbidetzen du. Trantsizio energetikoaren premia gizartearen parte-hartzeak eskatzen dituen denborekin orekatuz, proiektu honek udalerrian arrakasta eta iraunkortasuna izan dezan.

# Bibliografia eta beste erreferentzia batzuk



# Bibliografia eta beste erreferentzia batzuk

## Europako testuak

- **Europako Batzordearen biltegirako esteka**

## Estatuan

- Energia-komunitateak abiarazteko prozesuari buruzko lehenbiziko —eta oso fase goiztiarreko— **gida, IDAEk egina**, artean legeria guztia garatu gabe zegoenean gauzatua.
- Komunitateak eta beren esparru autonomikoan komunitateak sortzea sustatu duten tokiko eragileekin lankidetzan eginiko garapen instituzionalaren emaitza.

  - **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren gida**
  - **Aragoiko CEPES gida**
  - **Valentziako Diputazioaren energia-komunitateen sustapen publikorako gida**
  - **Energia-komunitate (EK) bat eratzeko gida azkarra. Nafarroako Gobernua.**
  - **Red Eléctricaren Gida (landa-eremuko energia-komunitate baterako eskuliburua)**

## Next Generation funtsen bidez, Eraldaketa Komunitarioko Bulego Teknikoek egindako lanaren emaitza

- **Valentziako Erkidegoaren gida**
- **Gaztela-Mantxako gida**
- **Vigoko Unibertsitatearen gida**
- **Energia-komunitateak eratzeko gida.** Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa. Asturiasko Energia Fundazioa

## Energia-komunitateak sortzeko interesa duen edonoren eskura jarritako tresna-kutxak, erabil daitezkeen elementuen paketeak eta estatuko beste gida batzuen erreferentziak jasotzen dituztenak

- **Unión Renovablesen gida eta baliabideak**
- **Som Comunitats-en gida eta baliabideak**
- **Goienerren gida:** partaidetza-prozesuaren ikuspegia
- **Ecodesen gida:** Energia-komunitateak eraldaketa sozialerako tresna gisa

## Udalak xede-hartzaile dituzten gida espezifikoak

- **Energia-komunitateak udal-ikuspegiarekin bultzatzeko gida.Bartzelonako Diputazioa (2021).**
- Energiaren aldeko Espainiako Hirien Sarearen gomendioak, **tokiko energia-komunitate bat abian jartzeko**

## Autokontsumoari eta energia-komunitateei buruzko gida espezifikoak

- **Tokiko energia-komunitateak sortzeko gida juridikoa (Kordobako Energiaren Probintzia Agentzia)**
- **Autokontsumoko instalazioen gida praktikoa. Gipuzkoako Foru Aldundia.** 2023ko urria.
- **Autokontsumoari eta energia-komunitateei buruzko gida | ARAGOIKO GOBERNUA.**
- **Autokontsumoa sustatzeko udalerrientzako orientabideen gida. IDAE.**

## Aipatutako edo intereseko beste azterlan eta lan batzuk

- **"Udalen eta energia-kooperatiben arteko lankidetza, autokontsumo-proiektuak garatzeko" Maria José Vaño**
- **"Energia-kontsumitzaileen kooperatiba, energia-komunitatearen forma juridiko egokiena den aldetik" (Gemma Fajardo).**
- **"Energia kooperatibizatzea. Kontsumitzailea ahalduntzeko formula" Treball aldizkaria, 106. zk.**
- **Energia-komunitateak. Azterketa-kasuak** (Orkestra)

## Araudia eta planak

- **2018/2001** Europako Zuzentaraua, eta osteko berrikuspenak: **2023/2413** eta **2024/1711**
- **2019/944** Europako Zuzentaraua eta osteko berrikuspena: **2024/1711**
- **Sektore Elektrikoaren 24/2013 Legea**
- **244/2019 Errege Dekretua,** autokontsumoari buruzkoa
- **4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasunari buruzkoa**
- **1/2024 Legea, Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketarena.**
- **Estatuko Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (PNIEC).**
- **Agenda 21** eta **Alkateen Ituna.**
- **33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa**
- **Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua (1372/1986 Errege Dekretua)**
- **2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa:**
- **5/2006 Legea, azaroaren 17koa, Euskadiko Ondareari buruzkoa:**

# Udalaren intereseko laguntzak/dirulaguntzak

- Energiaren Euskal Erakundeak **laguntza espezifikoak ditu indarrean,** eta udalek autokontsumo-proiektuak aurkez ditzakete haiek eskuratzeko.
- Foru Aldundiek ere eman dituzte laguntzak udalek energia-komunitateak bultzatzeko.

**Gipuzkoa**

- **10.000 biztanletik beherako udalerrietan energia-komunitateak eratzea sustatzeko gauzazko dirulaguntzak (2026).**
- **Gipuzkoako Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzea eta haiek egindako inbertsioak abian jartzea sustatzekoak(2026).**


**Bizkaia**

- **Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko dirulaguntzak udal eta mankomunitateentzat (2025).**

**Araba**

- **551/2026. Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea tokiko erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzen lerroa (2026).**

# Laburpen exekutiboa



# Laburpen exekutiboa

Dokumentu hau Euskadiko udalei zuzendutako gida estrategiko eta operatibo bat da, energia-komunitateak eta autokontsumo partekatuak sustatzen laguntzeko, premiaz heldu behar baitzaio energia-trantsizioari eta lehenbailehen baztertu behar baitira erregai fosilak. Jarraian, laburpen exekutibo xehatu bat dugu:

## Testuingurua eta justifikazioa

Gaur egungo klima-larrialdia eta petrolioarekiko energia-mendekotasuna ikusita, paradigma aldatu beharra dago tokiko baliabide berriztagarrietan (eguzkia, haizea, ura) oinarritutako eredu deszentralizatu baterantz. Egoera horretan, udalek abagunea dute beren tokiko autonomia berriz zehazteko eta herritarren ongizatea hobetzeko, energiaren prezioen aldakortasunaren aurrean. Trantsizioa ez da teknologikoa soilik, soziala baizik, kontsumitzaile pasibo izatetik bere energia ekoitzi, kudeatu eta partekatzen duen “protsumitzaile” aktibo izatera pasatzen baita herritarra.

## Zer da Energia Berriztagarrien Komunitate bat (EBK)?

Partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritutako entitate juridiko bat da EBK bat, eta bere kideek kontrolatzen dute (pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak).

**Helburu nagusia**
komunitateari eta haren inguruneari onura sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak eskaintzea, finantza-errentagarritasunaren gainetik.

**Forma juridikoa**
Forma juridiko bat baino gehiago izan ditzakete Energia Berriztagarrien Komunitateek, baina ohikoenak kooperatiba eta irabazi-asmorik gabeko elkartea dira.

**Autokontsumo Partekatuarekin dagoen aldea**
Autokontsumo partekatua sortutako energia berriztagarria banatzeko soluzio tekniko bat da, entitate juridiko baten beharrik ez duena; aldiz, EBK batek epe luzerako gizarte- eta energia-eraldaketa erabatekoa bilatzen du. Energia-komunitate baten barruan nahiz handik kanpo sor daiteke.

# Euskadiko arau-esparrua

Lege sendoetan oinarritzen dira komunitate horiek:

**4/2019 Legea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa**
Energia berriztagarriak erabiltzen eta energia aurrezten eredugarri izatera behartzen ditu euskal administrazioak.

**1/2024 Legea, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa**
Klima-neutraltasuneko xedea ezartzen du 2050erako, eta bi urtez behin tokiko klima- eta energia-planak onartzera behartzen ditu 5.000 biztanletik gorako udalerriak. Lege horrek energia-komunitateekiko lankidetza errazten du, eta herri-jabariko ondasunak edo azalera-eskubideak (adibidez, eraikin publikoen estalkiak) EBKen mesedetan lagatzeko eskumen esplizitua ematen die udalei.

# Udalaren eginkizuna

Toki-entitateak inplikazio-maila handiagoa edo txikiagoa izan dezake, bere helburu estrategikoen arabera:

**Bideratzailea**
Baliabide teknikoak, bileretarako guneak, komunikazio-kanalak eta aholkularitza ematen ditu.

**Sustatzailea edo bazkide sortzailea**
EBKren sorkuntza lideratzen du, talde eragilean parte hartzen du, eta udal-estalkiak laga ere egin ditzake hitzarmen edo lehiaketa publikoen bitartez.

**Onuraduna**
Beste edozein kontsumitzailek bezala jarduten du komunitatearen barruan, eta bere eraikin publikoetarako lortzen du energia.

# Sortzeko prozesu gomendatua

Proiektuaren arrakasta eta zilegitasuna bermatzeko, lau faseko ibilbide bat proposatzen da:

**Diagnostikoa eta talde eragilea**
Eragile nagusiak identifikatzea eta erabilgarri dauden estalki edo lur-eremuen ebaluazio teknikoa egitea.

**Sozializazioa eta baterako sorkuntza**
Hitzaldi eta lantegi parte-hartzaileak egitea, komunitate-eredua herritarrekin batera diseinatzeko.

**Eraketa juridikoa**
Estatutuak idaztea, batzar eratzailea antolatzea, eta dagokion identifikazio fiskala lortzea.

**Martxan jartzea**
EBK jendaurrean aurkeztea, kide berriak erakartzea, eta energia-instalazioak eraikitzea (eskuarki, fotovoltaikoak).

# Euskadin hautemandako tipologiak

Dokumentuak lurraldean aurretik izandako zenbait esperientzia biltzen ditu:

**Herritarrek sustatuak**
Besteak beste, Hernanin, Otxandion, Lezon, Urduñan eta Uribe-Butroen herritarrek eurek sotu dute talde eragilea.

**Energia-entitateek elkarte gisa sustatuak**
Besteak beste, Zumarragan, Larraulen, Lasarten, Barakaldon eta Bilbon (San Mamesko estadioari lotuta).

**Energia-entitateek kooperatiba gisa sustatuak**
Besteak beste, Azpeitian, Arrasaten eta Arabako Mendialdeko kuadrillan.

**Energia-komunitate ama batek sustatuak, tokiko erakunde publikoaren laguntzarekin.** Besteak beste, La Sierrako administrazio-kontzejuan, Ariznabarran eta Artziniegan.

**Tokiko sustapeneko autokontsumo kolektiboak**
Besteak beste, Elgetan eta Marieta-Larrinzarren (Barrundia).

## Ondorioak

Gidak ondorioztatzen duenez, udalek eta herritarrek Energia Komunitateen edo autokontsumo partekatuen bitartez elkarlanean jardutea ez da indarrean dagoen lege-araudiari erantzuteko modu bat bakarrik; lehen mailako tresna ere bihurtzen da legeetan ezarritako helburuak bizkorrago betetzeko, energia-sistema demokratizatzeko eta inor atzean utziko ez duen bidezko trantsizioa bermatzeko estrategia baten barruan. Udalak katalizatzaile gisa jarduteko abagunea du: prozesuaren sustatzaile nagusi bihur daiteke, eta prozesua teknikoki, juridikoki eta sozialki sendoa dela berma dezake.

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**Data:**
2026ko Iraila

**Argitaratzailea:**
EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea

**Idazkaritza Teknikoa:**
Goiener Taldea

**Diseinua eta maketazioa:**
GUK

Ercilla, 13, 48009 Bilbao
Tel: 944231500
eudel@eudel.eus
www.eudel.eus

